

...eta  
**Kitto!**

GEURE GAIA: Erreal Center proiektua: iritzi kontrajarriak •  
DANON AHOTAN: T. Etxebarria Sarien edizio berritua • FIRIN  
FARAN: Erakusketa sasoia zabalik • GAZTEKITTO: Europako  
unibertsitateak ezagutzen • KIROLEZ KIROL: Simon Aldazabalen  
edizio berria • AUZORIK AUZO: Auzozainen urteko jardunak •  
ELKARRIZKETA: Juan Leturiondo eta Felix Alberdi anderoak

647 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-IX-12



4.000tik gora ikasle  
eskolara bueltan

***Matrikula Zabalik***

euskaltegiaeibar@telefonica.net

Tfnoa: 943 70 09 12

Faxa: 943 82 00 89




**EIBARKO  
UDAL**

**EUSKALTEGIA**

PORTALEA – Bista Eder, 10

# Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu

*...eta kitto! aldizkarian  
duzu aukera (943 20 67 76)*



- LIPOSUKZIOA ■
- KOKOSPEAREN EZABAKETA ■
- BLEFAROLASER ■
- LIFTING ■
- PEELING ■
- COUPEROSIS ■
- BARIZEAK (LASER) ■
- AKNEA (LASER) ■
- ORBANAK ■
- TATUAIAREN EZABAKETA ■
- EZPAINEN PUZTUKETA ■
- ZIMURREN EZABAKETA ■
- BOTOX ■
- DIETETIKA ETA NUTRIZIOA ■
- MESOTERAPIA ■
- ZELULITISA ■
- BODY MOLDING (LP6) ■

Esraiguzu  
behar **Zer**  
duzun

Kontsultatu gure  
**Finantziazioa**

CLÍNICA ESTÉTICA  
**ABONTZA**

943 20 60 44

Egiguren, 6 - behea Info@clinica-abontza.com www.clinica-abontza.com  
EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ZENTROA 20.c.2.1.1853 R.P.S. 196/07



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarteak

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidor Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tñoa: 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ihintza Fernandez

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskara gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gaztelera bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gaitza eta berakatzatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

**ELIXAKO JENDE.-** Abadeak eta elizaren inguruak aipatzeko. Gaztelera 'clero'. "Garai hartan elixako jendiak eguzkiza hartzen eben".

**ELIXAKUAK ERAGIN.-** Elizak hiltzorian dagoenari eman ohi dion laguntza espirituala, oleazioa eman. "Elixakuak eragin ondoren hil da".

**ELIXAN LEHELENGO FILAN EGOTEN DANETARIKUA EZ IZAN.-** Baten bat eliztarra ez dela adierazteko konparazioa.

**ELIXIAK AZPIAN HARTUTA HILTZEKO ARRISKURIK BARIK BIZI.-** Norbait oso eliztarra ez dela adierazteko konparazioa. "Haretexk bai elixiak azpian hartuta hiltzeko arriskorik barik bizi zirana!".

## IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

### ARRATE EGUNA ETA HAINBAT ZENTZUGABEKERIA

Irailaren 8an, urteroko moduan, eibartar mordo bat igo ginen Arratera egun polit bat pasatzeko asmoarekin. Baina eguna ez zen espero bezain polita izan, hainbat zentzugabekeria gertatu zirelako. Lehenik eta behin azpimarratu nahi dut egun osoan Arratera igotzeko jarritako autobusek oso ondo funtzionatu zutela, baina aldiz, jaisteko azkeneko zerbitzua 20.30etan izan zen. Alde batetik, egun horretan Arratera kotxez ez igotzeko gomendioa egiten zaio jendeari garraio publikoa erabiltzera animatuz, eta horrela trafikoa arazoak eta alkohola edateagatik gerta daitezkeen istripuak ekidin nahi dira. Baina bestetik, ez dira horretarako behar adina neurri hartzen, eta azkenean ez dago loturirik predikatzen denaren eta egiten denaren artean.

Egun horretan autobusen ordutegiak erakargarriak izan behar du jendea garraio publikoa erabiltzera animatzeko, eta hori ez da lortuko azkeneko zerbitzua 20.30etan baldin bada. Are gehiago, kontutan hartzen badugu berbera 19.00etan hasten dela. Agian ondo legoke, berbera ere lehenago hastea, 17.00etan edo 18.00etan, alde batetik, tartean dauden "ezer gabeko" orduak betetzeko, eta bestetik autobusen ordutegi egoki bati moldatzeko.

Baina aurtengo jaietako gauzarik onartezinena anbulantzia eza izan da. Zerbitzu hori ezinbestekoa da hainbeste jende biltzen den leku batean. Askotan 5 minutuko aldea bizitza eta heriotzaren arteko aldea izan daiteke. Zorionez ez da ezer larririk gertatu, baina anbulantziaren beharra egon da larriak izan ez diren hainbat kasutarako. Arratera igotzen emandako minutuak, kasu batzuetan, bizia salbatzeko ezinbestekoak dira.

Azkenik aipatu beharra daukat autobusak irten diren lekua ere ez dela egokiena izan, bertan egiten ari ziren lanak ordu batzuk lehenago amaitu zituztelako, eta lanari atsedean hartzen laga beharrean, autobus mordo pasatu ziren gainetik. Hemendik hilabete batzuetara lur zati hori berriro ere altxatu beharko dute behar bezala ez dagoelako.

Arrateko jaietako antolatzaileek kontutan hartu beharok lituzkete esandako guztiak datorren urteko jaiak antolatzen hasi baino lehen. Anbulantziak Arraten bertan egotea, berbera ordutegi egokiago batean egitea, autobusen ordutegia zabalagoa izatea eta une oro ikustea nondik irten behar duten. Espero dezagun hau guztia kontuan izatea aurrerantzean.

Eli Gómez Laconcha


## asteko esaldiak HEMEROTEKA

"Politikariak ez dira txikiak ere egiten ari etorkinak euskaldun bihurtzeko. Aukeran, gaztelera eta ingelesez biziko dira haien haurrak-eta; haien alde bozka dezaten prestatzen dihardute, besterik ezer ez"

(Erlantz Urtasun, historialaria)

"Estatistikek diote beharginen %35i eragiten diela opor osteko sindromeak: sintoma fisiko, psikiko eta emozional horiek astebete irauten dute. Gorputzak orain ez du deskantsurik behar, eritmoa hartzea baino"


(Jone Beitiarrangoitia, psikoterapeuta)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## T. Etxebarria Sarien 19. edizioa martxan

**E**guztenean aurkeztu zituzte Toribio Etxebarria enpresa sariak udaletxean. Ekitaldian 19. edizio hau berritasun eta laguntzaile berriekin datorrela azpimarratu nahi izan zuten aurkezpenaren parte hartu zuten Miguel de los Toyos alkateak, Mertxe Garate industria eta merkataritza zinegotziak eta BIC-Berrilanekeo Maria Luisa Arriola eta Laura Espinek. Bestek beste 'Ekintzailatza Berritzaileari Euskadi Sariak' kategorian sortu dute.

Eibarko Udalak eta BIC-Berrilanekeo 1990. urtean sortu zituzten Toribio Etxebarria sariak Euskal Herrian ematen diren garrantzitsuenak dira eta 100.000 eurotik gora banatzen dituzte irabazleen artean. Sariak Eibarko Udalaren, BIC-Gipuzkoa Berrilanekeo, Eusko Jaurlaritzako Industria saileko Ekintzailatza Zuzendaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, SPRI-ren, APD-ren, EITB-ren, El Diario Vasco-ren, Kutxa-ren, Adegiren, Confebask-en eta Gipuzkoako Ganberaren laguntza jasoz



Aurtengo sarien aurkezpen ekitaldia.

tzen dute. Aurtengo antolatzaileen artean Innobasque, Gipuzkoa Berritzen, CEBEK eta SEA ere badaude.

### Berrikuntzaren urtea

Ekitaldian argitu zutenenez, 2008a Berrikuntzaren urtea da eta, horregatik, antolatzaileek Ekintzailatza Berritzailearen Euskadi Saria banatzea erabaki dute. Sari horrekin oinarri zientifiko-teknologikoko ekintzailatza prozesu batetik jaiotako enpresaren bat saritu nahi dute.

Lehiaketan hiru arlo bereiziko dituzte: Enpresa asmoak/proiektuak Saria, Enpresa Berriak Saria eta Arlo Teknologikoa Saria. Hiru ataletan sari garrantzitsuak banatuko dira, dirutan zein formakuntzan, aholkularitzan eta bestelako zerbitzuetan. Proiektuak lehiaketara aurkezteko azken eguna urriaren 7a izango da. Lehiaketaren inguruko informazio guztia BIC-Berrilanekeo webgunean ([www.bicberrilan.com](http://www.bicberrilan.com)) eskuragarri dago.

## Udazkeneko ikastaroak UEUn

**U**dako Euskal Unibertsitatean udazkeneko prestatu dituen ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Ikasturte honetan Eibarren, Markeskuan emateko 9 ikastaro antolatu dituzte: 'Jendaurreko komunikazioa lantzeko tailerra' urriaren 11n eta 18an emango du Gotzon Carcar-ek, 09.00etatik 20.00etara; haur kanta eta jolasen inguruko 'Dona dona katona, suntuondoa aitona...' ikastaroa urriaren 21etik azaroaren 13ra arte emango du Itsaso Arrietak, martitzen eta eguenetan, 18.00etatik 20.00etara; euskal ipuinak eta mitologia ardatz dituen ipuin-tailerra, berriz, azaroaren 8tik 22ra garatuko

da Ixabel Millet-en eskutik, zapatuetan, 09.00etatik 14.00etara; 'Kantua aitzakia: espresio tailerra' Amaia Zubiriak emango du, azaroaren 8tik 22ra, zapatuetan, 09.00etatik 14.00etara; gatazken konponketarako aukerak aztertzeko ikastaroa azaroaren 15ean eta 22an izango da, 09.00etatik 14.00etara, Aloña Goibururen eskutik; morfologiako eta sintaxiko ariketak konputagailu bidez lantzeko, berriz, Maxux Aranzabek eta Kepa Sarasolak azaroaren 5ean emango dute, 09.30etatik 19.00etara; ordenagailuz landutako itzulpena (Wordfast eta Plustools) Elena Garciak landuko du urriaren 7tik 9ra, martitzen eta eguene-

tan, 15.00etatik 18.30etara; eta teknologia berriak gaur egungo hezkuntzan aztertuko dituen ikastaroa Urtza Garaik emango du urriaren 18tik azaroaren

15era arte. Ikastaroen inguruko informazio zehatzagoa Markeskuan bertan jaso daiteke edo, bestela, [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean begiratuta.



Udako Ikastaroetako aurkezpen ekitaldiko irudia.

**GATE**  
English School

**LOREA HERNANDEZ ARIZAGA**  
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

**Radio Eibar**

**CADENA SER**

**104,0 FM**



## autuan

### COLISEOKO ARDURA LEHIAKETARA

Eibarko Udalak deitutako lehiaketaren bitartez erabakiko da 2009an Coliseo antzokiaren ardura nori eman, asistentzia-lanei eta antzokiaren zerbitzu orokorre dagokienez. Lizitazioaren ezaugarriei begiratuta, lanek 119.000 euroko kostua izango dute gehienez. Kontratatuko diren zerbitzuen artean, besteak beste, atean eta txarteldegien ardura, jarlekuzainena eta arlo teknikoarekin lotutako beste hainbat (argiztapen eta soinu ekipamenduez arduratzea) aipatu daitezke.

### ORDENAGAILU-LAPURRA

Ertzaintzak 45 urteko gizona atxilotu zuen Eibarren. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailak azaldu duenez, denda bateko eskaparatea apurru eta ba-

rruan zeuden lau ordenagailu eramangari lapurru zituen atxilotuak. Ertzaintzak "ohiko delitugiletzat" hartzen duen gizona Eibarko Txikito kalean atxilotu zuten, gainean zeraman motxila zabaldu eta lapurtutako ordenagailuak han zeudela ikusi eta gero.

### AUTO-ILARAK A-8AN

Artaziarena egin zuen kamioi batek kilometroetako auto-ilarak eragin zituen A-8an, Eibar parean martitzen arratsaldean, 19.00ak aldera; errepidea erabat moztuta geratu zen Bilborako norantzan eta Donostirako norantzan, berriz, zati batzuetan eten behar izan zuten ibilgailuen zirkulazioa. Ertzaintzak G-634 errepidera desbideratu zuen trafikoa eta itxitako bideak zabaldu bitartean, ordu eta erdiz ilara luzeak izan ziren autobidean.



### Vietnam, Irak eta Afganistan

Askok esan dabe Irak dala Estatu Batuen bigarren Vietnam: amerikanoak Irak inbaditu ebeneetik gauzak okerrera egin dabe, bost urte eta gero, ixa 150 mila soldadu ez dira gauza izan egoeria konpontzeko. Gauzak zihero usteldu baiño lehen, eta Vietnamekua barriro pasau ez deiñ, hil diran millaka irakiarak kontuan euki barik, Estatu Batuetako Alderdi Demokratik diño soldaduak atara egin bihar dirala. Baiña etxera itzultzeko? bai zera, Afganistanera bialtzeko. Han be sartu ziran estatubatuarrak. 2001eko irailaren 11ko atentaduen ostian, talibanek Al Kaedari babesu emoten etsela-eta, Estatu Batuek buru ziralara, Mendebaldeko herri askotako koalizio militar batek Afganistan inbaditu eban. Han be hasieran errez hartu zittuen mendian talibanak, baiña urtiak pasauahala, gauzak zihero aldrebestu jakuez: Kabul kenduta, gaur egunian talibanak ixa Afganistan guztia dauke kontrolpian, eta takian-potian segadak eta erasuak edonun eginda atzerriko hainbat militar dihardue hiltzen. Horrekin arduratuta, (inbaditzailliak zibil afganuen kontra egindako triskantzak ez dittue kontuan hartu) Barack Obama eta euren buruak demokratizat dauken Mendebaldeko agintarixak tropa gehixago bialdu nahi dittue. Ez dabe, itxuria, Historixiak lagatakuak ikasi nahi izan. Ez da, ba, gatxa: ikustia baiño ez dauke Britañiar Imperixuak eta Sobiet Batasunak Afganistanen hartutako pasarak.

EKHI BELAR

SILBIA HERNANDEZ

## ...eta kitto!-ri buruzko inkestaren emaitzen aurkezpena

Datorren egunean, irailaren 18an, Portaleko areto nagusian aurkeztuko dituzte udaberrian Aztiker enpresak ...eta kitto! astekariari buruz egindako inkestaren emaitzak. Aldizkariak laster 20 urte beteko ditu eta, hori aitzakiatzat hartuta, gure irakurleen iritzia jaso eta aldaketak martxan jartzeko une ezinhobea iruditu zaigu hau. Horretarako, horrelako ikerketan aditua den Aztiker enpresarengana jo genuen, eibartarren artean astekariaren inguruko iritzia zein den ezagutzen lagunduko digun azterketa diseinatu eta garatu zezan. Aztiker-ek telefono bidezko galdetegi osotu eta zabala egin zien 16 urtetik gorako 926 eibartarri eta jasotako emai-



tzak jendeaurrean ezagutzera emango dituzte datorren asteko ekitaldian. Horrez gain, astekariarekin batera idatziz erantzuteko galdetegi laburrago bat ere banatu zitzaizen irakurleei eta jasotako erantzun horien berri ere emango dute egun arratsaldean, 19.00etatik aurrera egingo den aurkezpenean. Amaieran piskolabisa eskainiko da.

## Untzagako alboko zeharbidea zabalik

Herriko erdialdeko kaleetan udaz geroztik martxan dauden lanak-direla eta, trafikoko aldaketak gertatu dira eta hainbat tokitan ibilgailu zein oinezkoiei pasatzea debekatu zaie, pabes berria ipintzeko lanak amaitu arte. Itxitako kaleen artean, aipatzen da Untzagako, udaletxeko alboetako batean (Guridi taberna parekoan) errepidea itxita egoteak traba ugari sortu dizkiela gidariei, besteak beste buelta handiagoa egin behar zutelako. Baina jaietan Arratera joateko autobusak Toribio Etxebarria kaletik irteten zirela kontuan izanda, jaietarako Untzagako alboko zeharbidea hori zabaltzeko ahalegin berezia egin dute eta astelehenean bertan zati bat zabaltzea lortu zuten. Zabaltzeke geratzen zen errepidea zati, berriz, martitzenaz geroztik erabiltzen hasi dira ibilgailuak.



Martitzenaz geroztik, 'Guridi' parteko errepidea zabalik dago.

Juan Andres Argotia


ORAIN DELA

# 10 urte

1998-IX-11  
244. ZKIA.



Ormaetxea eibartarra hasi zan Eibar entrenatzen.



Arrateko Ama prozesifuan etaritzen.

- Herrerian lekuaren kontraindegi berik esan atian, Puzlele kontraindegi pribatu zabaldu zaben. Artik 7 urtera arteko umiendako ardurako zerbitzua hasi zan eskintzen, bano sistemak erabiliz.
- Arrateko jaisak zabaldu floridade guruan espatu ziran arduan be. Dama dala, hiru stripu izan ziran, gusa larririk ez bosan izan be. Kofradiazaren egumian, be stalde, Alberto Alberdi. amendu zaben.
- Kike Ormaetxea fitxatu zaban Eibar Futbol Taldeak entrenatzaile kargurako. Aurretik be taldeko jokalarira best urtetan izandakak ez zaban suerte larregirik euki eta gutxi irauu zaban.
- Iostik Asittaino jaien errepeticimua setien brian ez bada ezitten be, arduko hartan hiru egumeko jaisak antolan ziran, arzak, pulso, teiste, futbito, gastronomia, mus eta marrarki trapalketekin.

## Euskophil filatelia txapelketa hartuko du Portaleak

Arrate Filatelia Elkarteak azken 38 urteetan Exfibar filatelia erakusketa antolatu izan du San Andres jaien inguruan, baina aurten aldaketa egitea erabaki dute elkarteko kideek eta, erakusketaren ordez, Euskophil Euskal Herriko Filatelia Txapelketa egingo da Eibarren, azaroaren 23tik 29ra Portaleko erakusketa aretoan. Elkarteko arduradunek aurreratu dutenez, Mercedes Kareaga jaio zela 100 urte betetzen direla aprobe-

txatuta, hori gogoratuko duen zigilu-markatzekoa eta eibartar ezagunari eskainitako seilua eskatu dizkiote Correos-i. Beste urte batzuetan egin ohi dutenari jarraituta, zigilu-markatzekoa erakusketa aretoan bertan atonduko duten posta-bulegoan erabiliko dute. Zigilu-markatzekoa eta seiluaren aurkezpena eta txapelketako irabazleei saria emateko ekitaldia azaroaren 23an, 12.00-etan egingo dute eta egun horretan eta hurrengoan es-



kuratu ahal izango da mendeurrena gogoratuko duen zigilu-marka. Informazio gehiago nahi izanez gero, Arrate Filatelia Elkartearekin harremanetan ipintzeko aukera dago, Eibarko 33 postakutxara idatzita.

## Hankamotxak bertso eskola berriro martxan

Udako oporraldiari agur esan eta atzo arratsaldean ekin zioten ikasturte berriari Eibarko Hankamotxak bertso eskola-koek. Aurrerantzean eguenero elkartuko dira bertsozaleak, Arrate Kultur Elkartearen egoitzan, 21.30etatik aurrera. Eskolako kideek bertsoaritzaren inguruko zaletasuna duen jende guztia eurekin batera bertsoarekin gozatzera animatu nahi dute. Interesa duenak nahikoa dauka aipatutako egun eta orduan Kultur agertzearekin.

## Aisialdirako eskaintza Deustuko Unibertsitatearekin



Manuel Cuenca eta Miguel de los Toyos.

Kultur arloko aisialdia lantzeko programa hitzartu dute Deustuko Unibertsitateak eta Eibarko Udalak. Manuel Cuenca Deustuko Aisialdi-Ikerketarako institutuko zuzendariak eta Miguel de los Toyos alkateak martitzen goizean sinatutakori jarraituz, aisialdia eta kultura bartzuten duten hainbat ikastaro eskainiko dituzte, lehenengoak urria eta abendua bitartean. Deustuko irakasleek emango dituzten ikastaroak musikaren eta pinturaren ingurukoak

izango dira eta edozeinek eman dezake izena, 16 urtetik gora izanez gero. 'Entender y disfrutar la música' eta 'La gran pintura española: El Greco, Velázquez y Goya' ikastaroe-tan izena emateko epea irailaren 15ean zabalduko da, Pegoran, eta urriaren 8ra arte egongo da horretarako aukera. Ikastaro bakoitzeko 28 euro ordaindu beharko dute Eibarren erroldatuta daudenek eta besteek, berriz, 45 euro. Informazio gehiagorako Pegorara jo daiteke.

EKHI BELAR

## Auzozaiñak 800 txostenetik gora egin zittuen iaz

Urtietan martxan egon eta gero, honezkeroko herriko auzuetan ezaguna da Auzozaintza, Udaltzaingua auzuetarako bereziki sortutako zerbitzua. Herritarrengandik ahalik eta gertuen egoteko asmuarekin ipiñi eben martxan esperientzia eta, lortutako erantzunarekin pozik, gaur egun erabat finkatuta dagan ekimena da, 2007. urtian egindako guztiak jasotzen daben txostenak argi lagatzen daben moduan.

Udaltzainguan azaldu deskuenez, *"herrixa 4 eremutan banatuta dago eta eremu bakoitxak udaltzain bat dauka izendatuta. Sistema honek dakan abantailarik haundixena, udaltzain horrek auzokuak ezagutzen dittuala da. Zerbitzua astelehenetik barixakura bittartian eskintzen da, uztailla eta abuztuan izan ezik. Goizez eta arratsaldez jarduten dabe biharrian auzozaiñak, 08.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.00etara"*.

Auzozaintza zerbitzua eskintzen hasi aurretik, herrixa lau eremu edo zatitan banatu eben eta gaur egunian be sailkapen berari segitzen detse: 'Behealdia' izeneko eremuak Urkizu, Barrera, Jardifeta, Matsarixa eta inguruak hartzen ditte; 'Erdialdiak', barriz, Isasi, Untzaga, Bidebarrieta, Errebal eta San Juan; 'Urki-Ipuruak' Urki, Ipuruak, Txaltza Zelai eta Errekatxu dagoz; eta 'Amaña-Legarren' Amaña, Legarre, Arrate Bide eta inguruak. Banaketa horretatik kanpo gera-



Auzozaiñek bete biharreko zeregiñak aspaldi dagoz zihetzuta.

tzen dan Otaola Hiribidiaren arduria udaltzaiñak txandaka hartzen dabe euren gain.

### Pauso zihetzeri jarraituta

Auzozaiñak betetzen dittuen eginkizunetara begira ipiñitta, pauso jakin batzueri jarraituta eskintzen dabe euren zerbitzua: *"Lehelengo eta behin, auzuan dagan arazuaren barri izaten dau, herritar batek zuzenian esanda edo, bestela, eguneroko zeregiñan berak ikusitta. Arazuaren barri txostenian jaso eta horri konponbidia emotiaz arduratu bihar dan saillari jakiñarazten detsa ostian. Gerora, jarraipena egitten detsa, denpora bat pasau ondoren agindutakua egin daben ala ez ikusteko. Ez badabe neurriker hartu, argibidiak eskatzen detsaz arduria bere gaiñ hartu bihar eban saillari eta, ondoren, keja presentau eban herritarri argibidiak aditzera emoten detsaz. Prozesuarekin amaitzeko eta Udal saillak eskatuta, txostenak egitten dittu"*.

### Lau eremutan banatuta dake herrixa auzozaiñak eta horrek gertutasuna dakar herritar eta auzozaiñen artian

Zerbitzuak, Mankomunitatia eta Ur Zerbitzuak atalen inguruan, hainbat funziño betetzen dabe: hiri-altzarixen mantienmendua (bankuak, umiendako jolasguniak, trafiko seiñaliak... konpondu edo barrizatzeko eskaerak) eta eskillara, horma, espaloi eta bestelakuen inguruko konponketa-eskaeren tramitaziñua, herriko kalietako argixen matxuren konponketak, trafiko seiñale eta bestelakuak barrizatzia eta herriko lorategixekin lotutakuak. Horrez gain, kale-garbittasunarekin zerikusixa daken gaixetan euren laguntasuna eskintzen dabe eta solte dabizen txakurrak jasotzeko abisua emotiaz arduratzen dira.

Obra eta Hirigintza saillarekin lotutako eginkizunen artian, bestiak beste obra-baimena eskatu dabenari etxera eruaten detse permisua, egitten diran obren kontrola egitten dabe eta, horretarako arrazoirik balego, obrira geratziaz arduratzen dira.

### Bide Heziketia

Trafikuari be arreta eskintzen detse euren eguneroko jardunian, ordenantza betetzen dala zainduta eta auzuetako ikastetxietako sarrera-urteeriak zaintzen dittue ikasliak atzera eta aurrera dabizen orduetan. Eta nahiko zihetzuta daguaz eginbeharreko horrez gain, sortu leikezen beste hainbat arazori konponbidia emoten ahalegintzen dira. Iaz, gaiñera, Bide Heziketari arreta berezixa eskindu zetsen, umien artian marrazki lehiaketia antolatuta eta jubilaueri hitzaldixak emonda (jubilatue etxietan emondako hitzaldixetan 250 lagunek hartu eban parte).

Auzuetan jasotako keja, proposamen eta bestelakuen inguruko 809 txosten tramitau zittuen auzozaiñak 2007. urtian zihar: 195 behealdeko kalietan, 229 zentuan, 159 Amaña-Legarre inguruan eta 226 Ipuruak aldi. Urtetik urtera ez da kopuruetan alde nabarmenik izaten eta zerbitzua martxan ipiñi ebenetik Zerbitzuekin lotutako gaixak hartzen dabe toki gehixen (2007. urtian egindako txostenen artian, 599 saill horrekin lotutakuak izan ziran).

### ...eta kitto! Astekariak BANATZAILEAK behar ditu



Euskara Elkarteak

Eginkizuna: ...eta kitto! Astekaria banatzea

Eskara:

- 16 urtetik gora edukitzea
- Barixaku arratsaldeetan libre egotea
- Arduratsua izatea
- Euskara ondo jakitea ezinbestekoa

Izena emateko deitu 943 20 09 18 telefonora edo pasatu gure bulegoetatik



Toribio Etxebarria, 4

# Oporreri agur esan detse 4.000 ikasle baiño gehixagok

*Urteroko moduan, Arrateko jaixak amaitziarekin batera oporreri agur esan detse herriko ikasliak. Batzuk pozik, beste batzuk ez horren pozik, edozelan be ikasturte barrixari heldu bihar izan detse Eibarko ikastetxietako gelak beteko dittuen 4.143 ikasliak. Iazko ikasle kopuruari begiratzen badetsagu, iaz baiño ikasle gehixago dagoz, baiña gorakadia haur hezkuntzan emon dan matrikulaziño-kopuruak eraginda dator. Izan be, batxillergo eta zikluetan izena emon dabenen kopuruak behera egin dau aurreko ikasturtiarekin konparatzen hasiz gero.*

**S**anjuanetatik hutsik egon diran ikasgelak aste honetan emon detse ongiatorriza ikaslieri. Uda osua jai izan eta gero, askorendako gogorra izan da atzera be eskolara bueltatzia, baiña, oro har, gehixenak gustura hartzen dabe lagunekin alkartzia. Azken urtiotan 4.000 ikasleren bueltan ibiltzen da herriko ikastetxietako matrikula kopurua eta hasi barri dan ikasturtia ez da salbuespena izan: aurreko ikasturtian baiño 150 ikasle gehixago matrikulatu dittue Eibarko ikastetxietan, 4.143 damera, baiña %3'7ko gorakadia ikasle txikixenen artian emon dan matrikulaziñoak eragin dau, hau da, Haur Hezkuntzan daguazten umien kopuruak. Luzaruan Eibarko populaziñoak behera eta behera etenbarik egiñ eta gero, azken urtiotan lehen baiño ume gehixago jai-xotzen dihardue eta, jakiña, horrek matrikula kopuruan eragiña izaten dihardu. Gaur egunian umiak urte birekin eskolara eruateko aukeria dago eta, egixa esateko, guraso gehixenak orduan bidaltzen dittue seme-alabak ikastetxera. Lehelengo ikasturte hori jokuetan eta oiñarritzen bada be, umiak gela batian egotera ohitzeko inportantia izaten da eta, horrekin konbenziduta, gurasuak Haur Hezkuntzarako matrikulatzen dittue. Aurten eskolia lehelengoz zapaltzen daben 330 ume dagoz herrixan, 2006xan

jaixotakuak urte biko umiendako geletan banatuta. Iaz baiño neska-mutil gehixago batu da Haur Hezkuntzako lehelengo maillan. Izan be, aurreko ikasturtian urte biko 235 ume matrikulau zittuen herrixan. Haur Hezkuntza oro har hartuta (2 eta 5 urte bittartekuak), barriz, iaz baiño 160 ikasle gehixago izango da ikasturte honetan.

### 330 ikasle barri

Azken aldiko "baby-boom" moduko horrek txikixenen artian eragiña euki badau be, nagusixaguen artian matrikulakopuruak kontrako joerari jarraitzen detsa: Lehen Hezkuntzak 6 eta 12 urte bittarteko umiak hartzen ditte eta matrikulatutako ikasle gehixenak hortxe pillatzen dira, 1.212 ikasle guztira. 12 eta 16 urte bittartekuak, Bigarren Hezkuntzakuak ez dira millara aillega-

**Haur Hezkuntza (2-5 urte): 1.043 ikasle.**  
**Urte bikuen geletan eskolara lehelengoz doiazten 330 ume hartuko dittue.**  
**Lehen Hezkuntza (6-12 urte): 1.212 ikasle.**  
**Bigarren Hezkuntza (12-16 urte): 908 ikasle.**  
**Batxillergua: 522 ikasle.**  
**Heziketa zikuak (erdi-maillakuak): 170 ikasle.**  
**Heziketa zikuak (goi-maillakuak): 279 ikasle.**



**Haur Hezkuntzako matrikulaziñoak nabarmen egin dau gora.**

tzen (908 haur dagoz matrikulautau). Eta hortik aurrerako ikasgeletan askoz be ikasle gixiango alkartuko dira ikasturte honetan: 522 batxillerguan, 170 mailla ertaiñeko heziketa zikluetan eta 279 goi-maillako heziketa zikluetan.

### Txikixenak euskera hutsian

Ikasliak zenbat eta txikixaguak, orduan eta indar haundixagua daka klasiak euskera hutsian emoten dittuan D ereduak: Haur Hezkuntzan matrikulautau daguazten ume guztiak ikasiko dabe D ereduari jarraituta. Lehen Hezkuntzan be ikasle gehixenak (%83'5) D ereduak dira eta bestiak B eredu elebidunian matrikulautau dagoz. Bigarren Hezkuntzako ikaslienen artian aldian nabarmenagua da (%65'8 D ereduak dira eta %34'15 B ereduak). Batxillergoko ikaslienen %56'3 baiñok ez dau euskera hutsian ikasteko aukeria hartu (B eredurik ez daguanez, beste guztiak gaztelerez ikasiko dabe). Erdi-maillako heziketa zikluetan gaztelera argi eta garbi nagusitzen da (%74'8) eta goi maillakuetan gauza bera gertatzen da, ikaslienen %81'7k A ereduari segiduko detse-eta.

### Aldaketak

Ikasturte barrixak, gaiñera, hainbat aldaketa ekarriko de-

tsez egunotan Gipuzkoa osoko ikastetxietara bueltau diran 100.000 ikaslieri, Eibarkuak barne. Aurretik be airean eguazten gai batzuk argittu barik segitzen dabe, baiña hurrengo hauteskunde autonomikuak egiñ aurretik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saillak horren gaiñeko erabagiren bat hartu biharko dau: hizkuntza ereduak aldatzeko proiektuari heldu biharko detse, Euskal Kurrikulumak onartzeke segitzen dau eta, derrigorrezko hezkuntzatik kanpo, Bolognako prozesuaren ondorioz ezarri biharreko unibertsitate-titulaziño mapa barrixa ziheztu biharko dabe. Gaiñera, azken urtiotan daguan irakasle premiñari aurre egitteko moduak aztertu bihar ditte Tontxu Camposek zuzentzen daben saillak.

Ikasturtia hasitta badago be, punto batzuk argitzeke dagoz oindiok be: ikasturte honetan Islamiar Religiñoa asignatura moduan landuko dabe EAEko hainbat ikastetxetan. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan hautazkua izango dan ikasgai barrixa jasotzeko 40 bat eskaera jaso dabe Hezkuntza saillian eta, eskaerak tramitatuz gero, hiru ikastetxetan irakasgai barrixa emongo dabe ikasturte honetan bertan Bizkaiko ikastetxe publiko batian.





*Jaixo, larrugorritan  
jaixotzen gara danok. Baiña  
di-da batian tapatzen  
gaittue eta hortik aurrerakua  
ez dago argi zelan moldau  
bihar garan. Azkenaldixan,  
gero eta gehixago dira,  
hondartzetakua alde batera  
lagata, kalera be billuzik  
urtetzen hasi diranak;  
ondoren, batzuen salaketari  
erantzunez, atxilotu  
eta kaletik erretirau dittue*

*udaltzaiñak. Baiña kasua da praktika hori debekatzeko daben legerik ez daguala indarrian eta holako kasuak behiñ eta barriro emon leikiatzela. Uda sasoiari gehixago, egixa esanda! Donostiko kasua zabaldu da oin dala gitxi, Bartzelonan be emon zan beste bat... eta Estatu Batuetako herrixka batian libre dake billuzik ibiltzeko. Halakuak ikusitta badago larregitxo aztoratzen dana be eta hori agresioñotzat jotzen dabena, euren begixak halakorik ikusteko ez dagozelako prestatuta. Naturara bueltatzeko ahalegiñak gero eta haundixaguak dira eta badira esaten dabena arboletara barriro igotzen hasiko garala halako batian. Ejerziziua egittia iñoiz ez dago soberan. Jantzitta edo ez, bakotxaren aukeria izan biharko leuke akaso. Edo ez! Jaun edo andra tripontzixak bista aurrian eukitta asko mintzen diralako batzuk. Erosotasun puntutik begirauta, zer da erosuagua: jantzitta edo billuzik ibiltzia? Merkiagua badakigu zer dan!*



### Luciano Martínez 72 urte, jubilaia

Legiak lagatzen dau holan ibiltzia, eta norbaittek kaletik billuzik juatia nahi badau, ba aurrera; oso ondo dago. Ez deusat iñori esango zelan jua bihar daben; bakotxak nahi dabena egittia daka, eta billuzik jua nahi badau, ez dot arazorik ikusten.



### M<sup>a</sup> Carmen Arrizabalaga 62 urte, jubilaia

Ridikulua ikusten dot, eta ez jata bape gustatzen. Nik egingo nebana debekatzia izango zan, ez dotelako ondo ikusten kaletik billuzik ibiltzia, ez jatalako gustatzen, eta uste dotelako holan ezin dala hortik zihar ibilli. Debekatzia izango zan onena.



### Teodora Muñoz 54 urte, etzekoandria


Oso txarto ikusten dot edozein kaletik billuzik ibiltzia. Bestienganako errespetu faltia dala begittantzen jata; nik debekatu egingo neuke jendia kaletik billuzik ibiltzia. Hondartza nudistetan-eta holan ibiltzia ez dot txarto ikusten, baiña bestela ez.



### Vicente Cejuela 50 urte, tornerua

Bakotxa nahi daben moduan jua leike kaletik, baiña neretako piskat deserosua da, ez nebalako jakingo ze aldetara begiratu. Ez dot uste legerik bihar danik billuzik ibiltzia debekatzeko; bakotxak ikusi bihar dau, gero begiratzen badetse-edo, hori beste kontu bat da.

*Zelan ikusten dozu  
jendia kalia billuzik  
ibiltzia?*



**TOPAGUNEA**  
EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA

## TOPAGUNEAK Haur eta Gazte Sailaren dinamizazio lanetarako lanpostu bat bete behar du

**ESKAITZEN DA:** aldi baterako lan-kontratua egun erdiz.

**ESKATZEN DA:** euskara ondo menperatzea, autoa izatea, harremanetarako erreztasuna, haur eta gazte eragile zein begiraleen koordinazio lanetan aritua izatea, ekimena izatea eta informatikako oinarriko ezagupenak edukitzea.

**Horrez gain,** haur eta gazteen heziketarekin harremana duten bestelako kompetentziak kontuan hartuko dira.

Curriculuma eta argazkia **irailaren 22a baino lehen** bidali honako helbidera:

**Topagunea Euskara Elkarten Federazioa** Arlozabal 8 bis- 1C – 48220 Abadiño (Bizkaia)  
**e-posta:** zuzendaritza@topagunea.com **Zalantzak argitzeko:** 94.621.58.16 /94.621.57.80

# DANBAKA))))))

III. MUSIKA LEHIAKETA  
DEBABARRENA DEBAGOIEN DURANGALDEA

## Danbaka musika lehiaketa aurkeztu zuten Eibarren

**G**oiena komunikazio kooperatiba elkarteak eta Espaloia Kafe Antzokiak antolatzen duten Danbaka musika lehiaketa aurkeztu zuten martitzenean Kultun Maider Arregi, Danbakako aurkezleak, eta Mikel Barandiaran, Danbakako koordinatzaileak. Hirugarren edizioa du aurten lehiaketa honek eta antolatzaleek erabaki dute Debagoienaz haratago mugak zabaltzea, horrela, Durangalde eta Debabarreneko taldeek ere aukera izango dute lehiaketan parte hartzeko.

Izena emateko epea irailaren 19an amaituko da, orduan, epaimahaiak 23 talde aukeratu ditu lehiaketan parte hartzeko eta 24. taldea zein izango den jendearen esku geratzen da interneten bidez. Parte hartzeko baldintza bakarrak, momentu honetan kontratu diskografikorik ez izatea, eta taldekideetako bat gutxienez Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldean erroldatuta egotea dira. Horiek betez gero, hiru abesti original aurkeztu beharko dira, taldearen biografia txiki bat, argazki bat eta harremanetan jartzeko telefono eta e-posta helbidea, danbaka@dan-

baka.com helbidean; Danbaka/132 postakutxa 20.500 Arrasate helbidean; edo Goienak Arrasate, Aretxabaleta edo Bergaran dituen egoitzetan.



## La Salle - Azitaingo antzerki taldekoak Zaragozan



*La Salle-Azitaingo ikastetxeko antzerki-taldeko kideak Zaragozako Expo-ra joan ziren aurreko barixakuan, hilaren 5ean. Azaldu dutenez, "urtean zehar egindako lana eta antzeppenak saritu nahian, bidaiatxo bat egitea erabaki genuen. Zaragozako Expo-a urari eskaini dionenez, ikasleen sensibilitatea eta ekologia sena indartzeko aukera izan genuen". Irteerari esker hainbat pabilioi eta antzezkizun ikusi zituzten. Bidaiaren arduradunen berbetan, "antzerki antzeppenetan lortutako diruaren % 50arekin ordaindu genuen bidaia, beste erdia La Sallek duen GKE-ren (Proyde-Proega) proiektuentzat izan baita. Beraz, antzeppen solidarioak bizitzeaz gain, giro alai eta jatorrean une ahaztezinak bizitzeko aukera ere izan dugu". Ikasturte honetan ere lanean jarraitzeko irrikitan daude.*

## HOROSKOPOA

### ARIES

Aste kaotikoa biziko duzu. Gertatzea esperatu zenuen gauza bat azkenean ez da gertatuko, baina hainbat ezusteko izango dituzu, eta ez dira oso goxoak izango. Hala ere, umoretsu ibiliko zara! Zu, izan ere, horrelakoa baitzara!

### TAURUS

Sustraiak hasiko zaizkizu etxeko sofan horrela jarraituz gero. Ez duzu ipurdia bertatik altsatzen ia komunera joateko ere! Ba atsedenerako egunak amaitu dira, beraz, pilak berriez kargatu edo zaplastekoren bat jasoko duzu!

### GEMINI

Penagarria da gertatu zaizuna, baina tira, aurrera begiratu behar duzu. Gogo asko zenituen amets hura betetzeko, baina, lortu ezin izan baduzu ere, pozik egotekoa da egin duzun ahaleginagatik. Lan asko egin duzu. Jendeak eskertuko dizu.

### CANCER

Egunen batean gurasoak hartu diezun diru guztiaren zerrenda batekin etorriko zaizkizu! Dirua xahutu besterik ez duzu egiten, eta zertan gainera! Hainbeste nahikari izango ez bazenu, bake gehiago izango lukete zure gurasoek. Eta diru gehiago!

### LEO

Gustu piska bat gehiago izan behar du zenuke arropa janterako orduan. Ez da gaizki jantzita joaten zaren gauza, baina hain gustuko duzun ohiu zaparrada aguantatu beharko koadro horiko soineko horrekin ipini. Zure eguna 17a.

### VIRGO

Gauza txar bat egiten baduzu, ihes egin beharrean lekuan gelditu eta egindakoarengaitik jasoko duzun ohiu zaparrada aguantatu beharko zenuke, duintasunarekin. Baina errez izutzen zara, nahiko koldarra zara-eta.

### LIBRA

Nola egiten duten negar umeak ikasturtea hastean, ezta? Ba ez egin barrerik hori ikustean zuk berdin egiten zenuen-eta! Garai politik haiek. Beno, orain ere alde positiboren bat izango du kurtso hasierak. Edo ez?

### SCORPIUS

Zure gorputz herrian egon arren, arima Arraten daukazu. Ondo pasatu zenuen bertan, baina jaisteko ordua da, etxean zain daukazu gurasoak, eta kezkatuta, beste bat dirudizu-eta! Datorren urtera arte itxarrotea besterik ez zaizu gelditzen.

### SAGITTARIUS

Berri onak jaso dituzu azkenaldian, eta are onagoak jasoko dituzu lasater. Kurtso berria era ezinhobean hasi duzu; ezin zara kexatu. Gainera, zerbaitengatik ilusioak bizi poza emango dizu egunero. Bizitzeaz gain, gozatzea tokatzen zaizu.

### CAPRICORNIUS

Zure burua beti gaizki ikusten duzu; autoestimua lurretik daukazu eta ez dago inor kontrakoa ikusiaraziko dizunik. Ba, tira, pentsatu nahi duzuna, baina jendeak lirain ikusten zaitu eta ez da biren kontua solik. Bisitatu ispilua!

### AQUARIUS

Parkeren batetik pasatu behar bazara datorren astean, adi ibili! Umeen baloiek zure burura joateko tententzia izango dute; beraz, kaskarrako bat jaso nahi ez baduzu... badakizu, parkeak sahiestu! Horregatik bakarrik ez, eh!

### PISCIS

Barre egiteko ez da asko behar. Txiste bat, filme barregarri bat, lagun xelebre bat... edozein aitzaki ona da barre batzuk botatzeko. Orduan, zergatik kostatzen zaizu hainbeste irrifarre egitea? Ez zara konplikatuegia izango, ezta?

## Europari bira 21 egunetan

Unibertsitatean sartzea berezia dela aipatu izan da beti. Ikasteaz gain, gauza askoz ere gehiago egitera gonbidatzen duen bizitzako sasoi da, aurreko eskola esperientziarekin zerikusi gutxi duena, heldutasunerako zubia. Unibertsitatean sartzeko zorian dagoen jendeak urduritasun osoz begiratzen dio bizitzan emango duen pauso horri, baita irrika eta gogoz ere, baina gehienbat ezjakintasunez.

Unibertsitatea zer den, zer eskaini dezakeen eta ikasle bakoitzaren bizitzan zer suposatu dezakeen jakin ahal izan du Ane Zabalak uda honetan. Izan ere, 17 urteko eibartar honek Francisco de Vitoria unibertsitateak ematen dituen 'Europa Beka' bat eskuratu zuen eta, honen bidez, Europa osoan zehar bidaiatu ahal izan du beste 50 ikaslerekin batera pertsonaia garrantzitsuak, unibertsitateak eta hiriak ezagutzuz.

### Europa osoa ezagutzuz

Hiru fase ezberdin gainditu behar izan zituen Ane Zabalak estatuko ikasle guztietatik azken 50 hautatuen artean sartzeko. Uztailean hasi zuen bidaiaria Anek Madrilen. Espainiatik Italiara egin zuen jautzia, eta han Erroma eta Bolonian egon zen. "Erroma asko gustatu zitzaidan, baina Bolonian, unibertsitateak zehazki, piska bat dezepzionatu ninduen". Italiatik Alemaniara. "Herrixo batean egon ginen lehendabizi, oso polita". Berlin ere asko gustatu zitzaien. "Asko harritu ninduen nola Berlineko zati bat nahiko zahartuta dagoen, eta beste bat oso modernoa den". Berlinetik Bruselara, eta handik Parisera, Lovainan eskala eginez. "Paris izan da bidaiaria guztitik gehien gustatu zaidan hiria. Aisirako denbora gehiago izan genuen eta

nahi beste gauza ikusi genituen". Frantziako hiriburuan hiru egun egin ostean, Mantxako Kanaleko itsas-azpiko tuneletik Oxfordera egin zuen Anek. "Arraunean egin genuen, baina nahiko txarto". Oxford utzi eta Londres izan zen azken geltokia Madrilerara bueltatu aurretik. "Pena bat da, egun gutxi egin baikenituen bertan". Madrilerara iritsi, eta bidaiarekin amaitzeko, Salamankara jo zuten ikasleek, 21 egun ahaztezin betez.

### Asturisko printzeekin

Bisita, ekintza kultural, hitzaldi eta aisirako denboraz gain, Europako politika eta bizitza publikoko hainbat pertsonekin aukera izan zuen Anek. "Aita Santua eta Berlusconiarekin egotea ere pentsatuta zegoen, baina hauen konpromezuak zirela-eta ezin izan zen gauzatu". Ane gehien harritu zuena Felipe Asturisko Printzea izan zen: "Hasiere batean ez neukan emoziorik bera ezagutzeko, baina ematen duena baino jatorragoa da". Letizia Ortizekin berba egiteko aukera ere izan zuten: "Printzearekin ezkontzeak ekarri dion aldaketa hainbestekoa ez dela esan zigun, lan bat bezalakoa dela. Ahal duenean 'Carrefour'-era erosketak egitera joaten dela aipatu zigun".

### Denbora aprobetxatu

Jaso zituzten hitzaldiak unibertsitateetako irakasleek eskaini ziren, eta behin hauei entzunda, beste kideekin eztabaidatzeko denbora izaten zuten., "hitzaldiak interesgarriak izan ziren, baina izan zen logalea eman zigun baten bat ere".

Horrelako aukera izanda, egunero minutu oro aprobetxatzea nahi izuten ikasleek, "goizean 06.00 edo 07.00etan esna-



tzen ginen eta gauean ahal beste irauten genuen esna". Beraz, ez da harrizkoa bi daia aurrera joan ahala nekea nabaritzea.

Europako gaua ezagutzeko irrika ere sartu zitzairen ikasleei, "pena izan zen asteburuetan ez ginela hiribururen batean egon. Hala ere, irten ginen pare bat alditan". Ohitura eta bizimodu ezberdinetako herrietan izan dela somatu du Anek, "hemen egiten den juergarekin alderatuz aldega dago, nahiko ezberdina da. Taberna baten sartu eta orduak eserita ematen dituzte etxera joan aurretik".

Europar zehar egin dituen 21 egun hauek ez ditu errez ahaztuko Anek, "oso ondo pasatu dut, oso pozik". Beste egun batzuk hasiko ditu orain: unibertsitate egunak.





SILBIA HERNANDEZ

# ERREBAL CENTER

## alderdixen arteko liskarren erdixan

**U**dako oporraldixa herriko egunerokotasunetik aldentzeko erabili ohi dabe askok, baiña Errebalen inguruko eztabaidak ez dau suetenik eskindu julixo eta abuztuan be. PSE-EE, EAJ eta EA alderdixetako bozeramailliak julixuaren azken egunetan prentsaurrekua emon eben, Errebal herri plataformako kidiak eta EB-Aralarrek merkataritza guniaren proiektuaren gaiñian esandakeri erantzuteko asmuarekin. Izan be, azken hillebetiotan Errebal Center proiektuaren kontrako mugimenduak indarra hartzen dihardu eta, bestiak beste, hainbat irregulartasun emon dirala salatu dabe. Horrekin batera, gaur egunian onartuta dagan proiektuak eta horren aurretik planteatutakoak zerikusi gitxi dakela diñue, eta hasierako planteamendura bueltatzeko eskaeria behiñ eta barriz entzuten da.

*Errebalgo merkataritza gune barrixaren proiektuak zeresan ugari sortzen dihardu azken aldixan. Bere sasoian Merkatu Plaza zaharra botatziaren inguruko eztabaidak ez ziran gitxi izan, baiña eraikiña behera bota eta Errebal Center dalakua jasotzen hasteko ixa pausorik emon ez dan honetan, hainbat herritarren artian sortutako plataformak planteatzen dittuan kontuak eta Udaleko alderdi politikuen arteko tirabirak komunikabidietan tarte haundixa hartzen dihardue eta, gauzak zelan dagozen ikusitta, badirudi iritzi kontrajarrixen arteko tirabirak luze joko dabela. Bittartian, Coliseo antzoki parian, herritar guztien bistan hesiz inguratutako eta obra-hondakiñak baiño ez dittuan zulo haundi bat dago, etorkizunian merkataritza guniak beteko daben hutsunia.*

Beste alderdixak, barriz, hasieratik proiektu bakarra egon dala diñue, gaur egun indarrarian daguana hain zuzen be, eta proiektuaren kontra daguazek hasierako proiektu modura definitzen dabena PSE-EE alderdixak bere hauteskunde kanpaiñarako kaleratutako fo-

tomontajia baiño ez dala.

### Proiektu bakarra ala bi?

Julixuan Le Tour d'Errebal izeneko kanpaiñia ipiñi eben martxan Errebal plataformak, eurak "hasierako proiektu" deitzen daben horrekiko atxikimenduak lortzeko as-

muarekin. Helburu berarekin eta gaixaren gaiñeko informaziñua herritarren artian ezagutzera emon nahixan, junixuan argazkixekin eta bestelako materialarekin osatutako erakusketa ipiñi eben martxan Topalekuan. Honezkero, eta eurak emondako datuen arabera, 1.200 atxikimendu edo siñadura batu dittue.

Euren kezkek eta kritikak kalera etaratziaz gain, Errebalgo auziak ziberespaziora saltua emon eban, Errebalgo bizilagun bik martxan ipiñittako blog-ari esker ([eibar.org/blogak/errebal](http://eibar.org/blogak/errebal)). Eurak azaltzen dabenez, "kezkatuta gagoz gure etxe parian jarri nahi deskuen merkatalgunia dala-eta. Ez da 2003an agindu zeskueña. Gogoetak, dokumentuak... pillatu nahi dittugu hamen eta, ahal dala, proiektua bideratzen lagundu". Horrekin batera prentsan gaixaren gaiñian ka-



leratutakuak eta Errebalekin zerikusia dakan bestelako materixal mordua jendiak kon-sultatzeko moduan ipiñi dit-tue, atxikimendua siñatzeko formularixua barne.

Interneteko helbide berian argi laga nahi dabe eurak ez daguazela Errebalek merka-talgune bat egittiarekin kontra, "ez euki iñolako zalantzarik horrekin. Hori bai, beti be le-helengo proiektuak ziñuana errespetatuz, hau da, merka-talgunia eta parkia egongo dirala Errebalek. Holan, herri-ko merkataritza bultzatiaz gain, Eibarko bizi-kalidadia haundixagua izango dala pentsatzen dogu".

#### Value Investment promotoraren asmuak

Horrenbeste gorabeherarekin, onartuta dagan eta, be-raz, aurrera egingo daben proiektua zertan dan ahaztuta eukiko dau batek baiño gehi-xagok eta, gauzak argitze al-dera, jarraixan aittatuko dittu-gu Errebal Centerrek izango dittuan ezaugarri nagusixak: Udalak lehiaketa bittartez au-keratu eban proiektua Value Investment promotorak aur-keztutakua izan zan. Promoto-raren asmua Eibar Boulevard

izeneko alkartiaren bittartez merkataritza guniaren kudea-ktarekin edo gestiñuarekin arduratzia da. Promotora ho-nek aurretik be badaka eskar-mentua horrelako autuetan, Barakaldon antzerako ezauga-rrixak dittuan merkataritza gu-niaren gestiñuarekin ardura-tzen dira-eta. Hasierako asma, behintzat, 2010. urtia-ren hasierarako merkataritza gune barrixa zabaltzeko mo-duan izatia zan, interneten (www.errebalcenter.com) ja-sota daken moduan. Eurak emondako informaziñuari be-gira, "herri barruko merkataritza gune modernua izango da, merkataritza, zerbitzu eta aisialdirako eskintza zabale-kua, 'Eibar merkataritza gune irekixaren' kontzeptua egi bihurtuko daben eta eskualde osorako erakargarria izango dan gunia eta ehun bat lan-postu barri sortuko dittuana".



SILBIA HERNANDEZ

Errebalgo bizilagunak informaziñua jasotzeko egindako billeretako bat.

#### 30 millioi euroko inbersifua

Ezaugarri fisikueri begira, eraikiñak 8.500 metro karratu-ko azaleria eukiko dau, hiru so-lairutan eta lur azpiko beste lau solairutan banatuta (horretatik hiru aparkatzeko erabiliko dit-tue, parking publikua eta ga-rajiak tartekatuta eta bestian merkatu plazia eta supermer-

kaua juango dira). Beheko pi-suan eta goiko beste bixetan, barriz, dendak, aisialdirako es-tablezimenduak eta ostalari-tzakuak zabalduko dira eta goi-ko terrazan 600 metroko pla-zia, estalkixarekin. Errebalek 30 millioi eurotik gorako inber-siñua egittia aurreikusten dabe promotorako arduradunak.

Eraikiña jaso aurretik proiektuaren inguruan izandako erantzun ona azpimarratzen dabe, eskintzen daben azalera-ren erdixa gordetzeko eskaer-ak jaso dittuelako: Eroski tal-diak Eroski Center supermer-kaua zabaltzeko 2.000 metro-ko azaleria eskatu dau eta Quasar Elite-k, barriz, goiko

**Aparkaleku gehixago sortzeko, aurreikusitta eguazanak baiño lur azpiko solairu bat gehixago egitteko daguazan aukerak aztertzen dihardu Value Investment-ek**

## Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

- |                           |                     |
|---------------------------|---------------------|
| 1 Kardiologia             | 9 Psikiatria        |
| 2 Zirugia                 | 10 Radiologia       |
| 3 Dermatologia            | 11 Traumatologia    |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 12 Barne Medikuntza |
| 5 Análisi Klinikoak       | 13 Alergologia      |
| 6 Ortodontzia             | 14 Koloproktologia  |
| 7 Otorrinolaringologia    | 15 Urologia         |
| 8 Pediatria               | 16 Erizaintza       |

## EGOITZA NAGUSIA

Bidebarrieta 20 - behea


FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa  
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**



Goixan, hauteskunde munizipalarako PSE-EEK aurkeztutako foto-montajia. Behian, Value Investment enpresaren proiektua.

solairuan 400 metro hartuko d ditu, terrazan beteko d ituan 1.300 metruetz aparte.

#### Prozesuan emondako pausuak

Miguel de los Toyos alkatiak proiektuaren garapenian izandako prozesua azaldu desku: *“Proiektu guztiakin pasatzen dan moduan, honetan be prozesu bat jarraitu da, proiektu konkretu batera ailegau aurretik. Pauso administratibuak eta bestelako batzuk emon bihar ziran eta emon egin dira, Plan Nagusixa onartu aurretik eta denpora horretan ez da proiektuaren gaiñeko alegaziñorik aurkeztu. Gauzak holan, arazo barik aurrera zoian proiektua zalakuan genguazen, hauteskundiak izan baiño hiru egun lehenagora arte, hortxe hasi ziran proiektuaren kontrako mobilizaziñuak. Gu ez gara mobilizaziñuak kritikatzan hasiko, jendiak horretarako eskubide osua dakalako, baiña EB-Aralarren jarrera ez dogu ulertzen: lehenagotik be informaziño guztia eskura izanda eta alegaziñuak aurkezteko aukeria eukitta be, ez dabe alegaziñorik aurkeztu eta oiñ, herri maillako*

*mugimendua hasten zala ikusitta, horri heldu detse, eurekin bat eginda”.*

Proiektu bi aittatzen diran puntura ailegauta, De los Toyosek oso argi daka Errebalera-ko proiektu bakarra egon dala: *“2003. urtian, hauteskundieri begira, PSE-EE alderdixaren proposamen bat egon zan, fotomontaje baten bittartez planteauta. Euskal Herriko Unibersidadiak herri maillako merkataritzaren gaiñian egindako azterketan jasotakuari jarraituta, El Corte Inglés barrixak izango daben eragiña orekatzeko zeozer egin bihar zala agerixan geratu zan. Horrekin batera,*



Topalekuan hasi zeben siñadura bilketia eta 1.200dik gora ei d ittue; Errebalgo plataformaren webgunian eman leike siñaduria gaur egun.

## “Value Investment promotorak aurkeztutako proiektua onartu genduan Udalian eta alderdixen artian adostasuna lortu zan”

(MIGUEL DE LOS TOYOS)

*merkatu plazia berreskuratze-ko eta aisialdirako gunia sortze-ko premiña argi ikusten ziran. Horrek danak kontuan izanda, Value Investment promotorak aurkeztutako proiektua onartu genduan Udalian eta alderdixen artian adostasuna lortu zan”.*

Julixuan egindako agerpe- nian, PSE-EE, EA] eta EA alderdixak proiektuan irregulartasunik ez dala egon argittu nahi izan eben, EB-Aralarrek egindako salaketari erantzunez eta prozesuan “gardentasuna” nagusitu dala errepikatu eben. EB-Aralarrek lurraren salmenta burutzeko moduarekin eza- dostasuna hasieratik erakutsi ebala onartu eben gobernu taldeko ordezkariak, “baiña ez eben sekula ezer esan eraikiñaren ezaugarrixen gaiñian”. Horrekin batera, “polemika artifiziala” sortzia egotzi zetsen EB-Aralarreko kidieri.

Talde horretako ordezkari- xak, barriz, “bide juridikua oindiok agortu barik daguala” azaldu eben eta berba gogor- rarak izan zittuen hasieratik proiektu bakarra egon dala defendidu eban Aitor Alberdientzat, bere azalpena “patetiko” bezala definiduta. Horren aurrian, EA]ko ordezkari-

xak aurretik esandakua berre- tsi desku: *“Proiektua 2006ko Plan Nagusixan jasotakua da eta bestia, barriz, 2003ko hauteskunde kanpaiñarako PSE-EEK aurkeztutako foto- montajia, bere sasoiak geuk kritikautakua. Baiña edozein proiektuaren ezaugarri guztiak betebeharreko baldintzak jasotzen d ittuan plieguetan jasota egoten dira, gero konkur- sora etaratzen da eta han aurkeztan diranak anteproiek- tuak izaten dira, behin-betiko onartu bittartian. Kasu hone- tan jendiak informaziño nahi- kua izan daben ala ez bako- txak balorau biharko dau, bai- ña hortik aurrera pentsatzen dot EB-Aralarrek ez dabela modu zuzenian erabilli infor- maziñua, jendiari ez jakoz gauzak zuzen kontau”.*

#### Biharrera noiz bueltauko diran zain

Merkatu plazako eraikiña bo- tatzeko horrebeste presa izan eta gero, jendiak harrittuta be- giratzen detsa Errebalen gera- tu dan hutsuniari, hillebetietan ez dalako iñolako lanik egiñ han inguruan. Alkatiak esan deskunez, hillebete honetan bertan promotorako arduradu- nekin batzeko asmua dake, biharrekin noiz jarraituko da- ben argitzeko. Dana dala, bihar- rarak geratuta egoteko arrazoia zein dan badakixe: *“Inguruan bizi diranen kezkek ikusitta, ezertan hasi baiño lehen oso ondo konprobau nahi d ittue gauza guztiak eta eskura da- guazen baliabide guztiak erabi- lli nahi d ittue, segurtasunik haundixenaren billa. Bestalde, aparkaleku gehixago sortze- ko, aurreikusitta eguazanak baiño lur azpiko solairu bat gehixago egitteteo daguazan aukerak az- tertzen dihardue”.*

# 3.000 sarittik gora Arraten

**A**stelehena izanda, jende gutxi batuko zala uste zeban batek baiño gehixagok, baiña aurtenguan be Arratek gaiñezka egin zeban. Autobusak bete-beteta aillegatzen ziran, beste asko oiñez, Arrateko gaiña jomuga zekan eibartar askok juañ dan astelehenian. Eta hori be igarri zan Kittonbolian. Sei garren urtez antolau zeban ...eta kitto! Euskara Elkartiak kittonbolia, 3.000 sari baiño gehixago banatzeko prest. Boletuen erosliak baiño ez ziran falta, goixeko 10.000etan Kittonboliak atia zabaldu ebanian.

Tonbolia zabaldu orduko hasi zan jentia gerturatzan: gaupasia eginda asko, bestiak goizeko lehelengo metzetara etorritakuak, boletotxo bat erosi eta ia zer tokatzen zan zaiñ.

Boletuak saltzen hasi bezain azkar hasi ziran sarixak banatzen; egun bakarrian 3.000 banatzia ez da lan makala, baiña horretarako lan talde haundixa ekan ...eta kitto!k. Gero eta jente gehixago batzen zan Kittonbolian inguruan eta premixo haundi eta txikixak Arrateko kanpetan ikusteko aukeria zeguan: baloiak, zapixak, gailleta eta bonboiak asko, baiña horrekin batera aspiradora, sandwichera edo kamisetak. Eibarko enpresa eta komertzioak eskindutako oparixak dira gehixenak, eta hurrengo orri bixetan ikusi zeinkie zeintzuk izan diran



SILBIA HERNANDEZ

aurtengo laguntzailiak. Euskara Elkartiak eskerrak emotia baiño ez daka sei urtian horrenbesteko laguntasuna eskindu detsen guztieri.

## SARI ASKO ETA POTOLUAK



Premixuak urten eta urten, ...eta kitto!ko langilliak pozarren emon zittuen sari danak: urtero Kittonbo-

latik pasatzen diran aittasemiari Nintendo DS-a, adibidez, "iñoiz ez jaku sari potolorik tokau, baiña aurtenguan bai" esaten zeban pozik aittak.

Telebista, DVD portatilla, afarixak, urdaiazpikuak, etxeko tresnak, kamisetak, bizikletia, otarrak etabar luzia... danak hartu eban Eiba-

rerrerako bidia. Barriro be arrakasta haundixa euki eban Kittonboliak; eta aurrikuspenak bete eta aurrera segitzeko indarra emon desku aurtenguk be. Hurrengo Kittonbolara arte, lanian jarraituko dogu rebistia, hitzaldixak, ikastaruak eta euskaria bultzatzeko programak preparatzen; zuen laguntasunarekin, jakiña.

# KITTONBOLIA



# KITTOnbolia



Euskara Elkarte

*Arrate egunean, zuen ametsak errealitate bihurtu zituzten denda, enpresa eta kirol taldeak aurkezten dizkizuegu. Aukera paregabea izan zen Arrate egunean eta, euro baten truke, eibartar gutxi geratu zen sari barik. Eibartarrok eibartarrentzat egindako tonbola berezian parte hartu zenuten guztioi, eskerrik asko!!!*

- AIBE
- Alfa Hogar



- Cadenas Iris



- El cantón de la avenida



- Ansa bitxitegia
- Arrate loradenda
- Artola jatetxea
- Asegarce
- Askasibar



- Calefacciones Eibar



- Emankor taldea



- Aspe
- Athletic Club
- Ayerbe liburudenda
- Azitain erretegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Benicoba- Master
- BM supermercados

- Capi
- Casamania
- Desvan
- Dirdai bitxitegia
- Egaña elektrodomestikoak
- Eguren eletrodomestikoak
- Eibar Kirol Elkarte



- Eroski
- Errebal kirolak
- Eskarne jatetxea
- Eslune
- Esteban Oroz



- ...eta kitto!
- Etesa



- Euskadiko Kutxa-Caja Laboral

Eskerrik asko guztion laguntzagatik



## OSTALARITZA - VENDING

Zure zerbitzura

ostalaritza • enpresentzako •  
erregistro eta gestio sistemak



Mocay



Polonia Ebeberria 14-16 • EIBAR

Tel.: 943 20 31 12

Fax: 943 20 17 84

urkotronik@urkotronik.com



- Euskal Bizikleta
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Gurbil jatetxea
- Halcon bidaiak
- Hodei estetika
- Idoia Bergaretxe spa
- Industrias DEJ-Teknia
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi
- Iris sport
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi
- Izane
- J.D. Arrate
- Jauregi

- Kantabria
- Kareaga



- Kiñu
- Kokein
- Krabelin
- Kros-sports
- Larramendi- Milar
- Laumar
- Leder
- Lide
- Mamacas
- Marian-Idoia spa
- Mega
- Mertxe gazta eta txerriak
- Narrua
- Neure
- Orbea

- Su Ta Gar
- Tribeka



- Tribux
- Trinkete



- Tximeleta
- Txutxufletas
- Ulmar
- Umea
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zero
- Zahor



- Jaz-Zubiaurre



- Jeronimo
- Julen argazkidenda



- Photosynthesis
- Pirritx eta Porrotx
- Pitxiak
- Publiresa
- Salaberria bitxitegia
- Selene
- Solera eibarresa



# arrateko jaixak 2008



ONDO JANDA MAJO



BIHARRA... ETA KONZENTRAZINUA



PROZESINUAN



SEGIDILLEN ERREINUAN



SEASKA  
KANTUAK



DANTZAN  
ZELAIKO  
FLORIDADIAN



## Arrateko jaixak ez dira amaittu

Arratiak oso giro onian pasau ziran, eguraldixak be eskua bo-  
ta zabalako. Ekitaldi ugari eta bezperako gabeko freskotasuna-  
ri Arrate eguneko berotasunak erantzun zetsan. Bertso-afarixa,  
herri kirolak, rock kontzertua, prozesiñua, trikitalarixak, dantza-  
rixak, bertsolarixak, berbenia... gauza asko izan ziran disfruta-  
tzeko. Oin Kofradixaren eta Basarritar jubilauren eguna ospa-  
tuko da domekan; horretarako be hor dagoz antxitxiketaldi-  
xa, pelotia, paella lehiaketia, jubilaundako bazkarixa eta idi-  
probak. Ahaztu barik bixar aurkeztuko dala Arrateko Amaren  
irudi berrittua santutegixan egingo dan letanien mezarekin ba-  
tera. Okasiño paregabia Arratera barriro igotzeko!



**ARGAZKIAK:**  
Lelre Iturbe  
eta Silbia  
Hernandez.



# JUAN LETURIONDO eta FELIX ALBERDI, ARRATEKO AMA BIRJINAREN ANDEROAK:

## “Oso pozgarria izan zen omenaldia jasotzea”

*Ama Birjinaren pisua euren sorbaldetan hainbeste urtetan zehar eraman ondoren, omenaldia jaso zuten astelehenean, Arrateko Amaren egunean, Juan Leturiondo eta Felix Alberdik. Biak Arrate inguruko baserrietakoak izanik, gogo onez jaso zuten omenaldia, inoiz ahaztuko ez duten omenaldi beroa.*

**- Omenaldia jaso zenuten Arrateko Amaren Jaietan. Zer sentitu zenuten omenaldia egin zen momentuan?**

**JUAN:** Nik momentu txarra pasatu nuen omenaldian. Oso oso urduri nengoen eta hainbeste jenderen aurrean omenaldi bat jasotzean, nahiko momentu txarra pasatu nuen. Era berean, oso pozik jaso nuen omenaldia, zoragarria baita horrelako zerbait jasotzea beti ere. Baina hori, Arrateko eliza bete-beteta zegoen eta horrek urduri jarri ninduen, ez nago ohituta horrelako gauzatarata. Bizitza osoan ahaztuko ez dudana zerbait izan zen, oso hunkigarria, eta urduritasunaz gain oso gustura egon nintzen.

**FELIX:** Pozgarria izan zen. Kanpoan bizi naiz ni, Gasteizen, eta nitaz akordatu izana eta omentzea zoragarria izan da niretzat, Juanek esan bezala, ahaztezina.

**- Omendua izango zinetenaren berria nola jaso zenuten?**

**J:** Niri Emilio Azurmendik esan zidan, Sagar Bitzakoak. Hasie-

ran pentsatzen nuen broma zela, zeraitik omenduko ninduten ba ni? Inoiz ez dut jaso horrelako ezer, gauza berria da niretzat, baina era berean pozgarria. Ni urduri jarriko nintzela esan nion, eta berak lasaitzeko, hainbesterako ez zela izango. Trankil joateko esan zidan, baina berdin-berdin hainbeste jenderen aurrean urduritasuna haundia izan zen.

**- Merezitako omenaldia dela uste duzue?**

**J:** Ez dakit ba, ez dakit nik horrelako gauza bat lortzeko hainbeste merezimendu egin dudana (barreak).

**- Nolako izan zen omenaldia?**

**F:** Arrateko Amaren elizaren barruan izan zen eta hiru plaka ezberdin eman zizkiguten. Batek Arrateko elizaren irudia dauka, beste batek Arrateko Amaren irudia eta, azkenak, berba batzuk ditu bertso moduan, oso politak. Bertsoak, gainera, laguna dugun Narbairazarenak ziren.

**- Etxean bistan ipintzeko moduko opariak dira horiek.**



FELIX ALBERDI

**J:** Bai, noski. Bata bestearen ondoan ipiniko ditut nik, izan ere, bizitzan inoiz ahaztuko ez dudana eguna izan zen astelehena, horrelako omenaldi bat ez delako egunero jasotzen. Beti gogoan edukitzeko eta behar den garrantzia emateko, etxean leku dotore batean kokatuko ditut, merezi duten bezala.

**- Anderoa zineten, eta zuk Juan oraindik jarraitzen duzu. Baina, zer da anderoa izatea?**

**F:** Ama Birjina eramaten duena da.

**J:** Arrateko jaietan Ama Birjina sorbaldan hartu eta aurrera. Normalean gurutzetik elizarako bidea egiten da, baina datorren domekan kofradiarekin berriro irtengo gara, eta plazan buelta egingo dugu.

**- Beraz, ez zarete jaietan bakarrik irtetzen.**

**J:** Ez, extraren bat egin behar badugu edo dena delakoa, ba Ama Birjina atera eta buelta ematen dugu. Baina, hori bai, Arrateko jaietan beti irtetzen gara.

**- Noiz hasi zineten andero moduan?**

**F:** Arrate zalea betidanik izan naiz ni, gainera, bertakoa izanda, are gehiago. Gu Don Pedrokekin pelotan eta abar aritzen ginen, lagun handiak ginen, eta berak eskatuta hasi ginen. Hala ere, ni beti izan naiz nahiko altua, horrela, Ama Birjina eramaten dutenak altura parekoak izan behar zirenez, zaila nuen hura eramatea, besteengan eroriko zelako pisu guztia. Beraz, noizean behin izan naiz andero, eskatzen zidatenean batipat.

**J:** Ni 1952. urtean hasi nintzen, baina aurretik behin edo behin ere ibili nintzen Ama Birjina sorbaldan eramanda.

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxes: 943 12 11 40  
uthemek@uthemek.com

**UTHEMEK** MEKANIKETARAKO  
TRESNAK

SPK - Zeramika, silizioa  
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak  
ROY - Diamante eta boraxezko harriak

EMAKUME ETA GIZON  
**MODA**

**Valenciaga** Konfekzioak

☎ 943 20 22 33 Zuloagatarren, 7



**- Eta erretiroa, noizko?**

**J:** Hori goiko Jaunak esango du. Bien bitartean ni pozik andero moduan, momentuz ez daukat uzteko intentziorik.

**F:** Nik ez nuen urtero urtero egiten, baina jubilatutik nintzenetik gehiago aritzen nintzen andero moduan. Hala ere, adina dela-eta, osasun kontuengatik utzi egin behar izan nuen. Gustuko dut Ama Birjina ateratzea eta eurekin batera joatea, baina gurutzeari buelta eman zaionean nik ez dut sekula andero egin.

**- Gasteizen bizl izanda, herrira etortzeko aitzakia ederra izango zen Arrateko jaletara gerturatzea.**

**F:** Bai. Pena da Gasteizen egonda ezin nintzela etorri nahi bezain beste, lantzean behin soilik, baina jubilatutik nintzenetik gehiagotan etorri ahal izan naiz.

**- Ama Birjinak daukan pisuarekin eta abar, ez da gogorra andero izatea?**

**J:** Lehen bai, lehen oso gogorra zen, oso astuna. Baina garai batean arindu egin ziguten kontua eta orain nahiko errez eramaten dugu, arazo barik.

**- Orduan, sasolko egon behar izango zen lehen Ama Birjina eramateko.**

**J:** Bai, beno. Gauza da base-rrian ohituta geundela pisua kargatzera eta abar, horrela, nahiz eta nekealdiren bat-edo pasatu, ez zen oso gogorra egiten.

**- Zenbaten artean eramaten duzue Ama Birjina?**

**J:** Lau laguneren artean.

**- Pertsona berdinek beti?**

**J:** Ez, ez. Jendea ezkontzen

zihuan heinean, antero izateari uzten zion eta beste berri batzuk sartzen ziren. Nik ez kongabe jarraitzen dudanez, hor jarraitu dut beti.

**- Zergatik hasi zintzen andero moduan?**

**F:** Arrate inguruan bizi ginen eta Don Pedronen lagun handiak ginenez, ba horrela hasi ginen. Beti egiteko eta egiteko esaten zigun, eta azkenean hasi ginen.

**- Ama Birjina noizbait erori zaizue bidean?**

**J:** Ez, ez. Beti ondo joan da bide osoan. Hori bai, eguraldi txarrek, euriarekin eta abar, labandu egin izan gara noizbait Gurutze bueltan, edo aldapa behega gaizki pasatu dugu, baina inoiz ez zaigu jauzi. Txarrena Eibartik Arraterako pausoetako aldapetatik joatea zen. Hura bai zela latza, orduan bai nekea! Lehengo Ama Birjina zaharra zen eta pisu handia zuen, 150 bat kilo, eta aldapan gora gindoazela atzera eroriko zitzaigula uste genuen. Bide estuak pasa behar genituen, Ama Birjina zuhaitzen aurka jotzen zen batzutan... txarto! Baina orduan sasoi ona genuen, gazteak ginen, 20 urteren bueltan, beraz, eraman ahal genuen.

**- Aurtengo Arrateko Amaren jaletan nola pasatu zenuen?**

**F:** Ondo. Elizan jasotako ome-



JUAN LETURIONDO

naldian jende asko egon zen, ez zegoen gehiagorendako lekurik. Gero anaia eta koinatekin egon nintzen, eta oso pozgarria izan zen. Eurekin ondo bazkaldu nuen, gainera eguraldi bikaina egin zuen, beraz, ederto.

**J:** Ondo, oso ondo. Arratera goizean joan nintzen eta han ibili ginen eguardian, plazari buelta ematen eta abar. Gero pare bat trago hartu eta base-rrira bueltatu nintzen, bertan familiarekin bazkaltzeko asmoa neukan-eta. Oso ondo egon zen eguna.

**- Jalak ospatzeko era asko aldatu da zu gaztea zinenetik?**

**F:** Ez dakit, jaiak gazteentzako izaten dira-eta. Bertso-afarian egon nintzen eta irtetzean bueltatxo bat eman nuen, baina bilobak esan zidan: "Tio, zu zarella hemen dagoen zaharrena!", eta seguru izango nintzela. Giro ona zegoen, lehen egoten zena modukoa. Baina beno, bakoitzak bere sasoi bizi behar du.

**J:** Ez, gauzak ez dira asko aldatu, antzera dabilta. Gauza batzuk aldatu izan dira urteetan zehar, baina ez kontu handirik, bere horretan diraute jaiak, bere esentziari eusten zaiola esan daiteke. Aldaketa nagusia, agian, lehen oinezko gehiago etortzen zela da, zenbat jende gainera, orain askok nahiago dute autobusean edo autoan etorri.

**- Alperragoak gara orain?**

**J:** (Barreak) Sasoi hobea bizi da orain. Lehen autoa edukitzeko aukera gehiago balego, nori daki, agian berdin egingo genukeen.

**- Zer da Arrateko jaletatik gehien gustatzen zaizuen?**

**F:** Jendea. Pozgarria da hainbeste jende ikustea. Lehen ere pertsona asko hurbiltzen zen Arratera, astoekin eta abar, orain piska bat ezberdina da hori, baina jendeak igotzen jarraitzen du.

**J:** Bezpera. Arrateko zelaia animatzen hasten denean, kanpaiak jotzen eta txapligoak gora, orduan da gehien gustatzen zaidan momentua, biharamonean jaiak izango direla gogoratzen duzulako. Ez dakit, bezperako animazioa bereziki gustatzen zait.

*Ekhi Belar*

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

## NTRA. SRA. DE BEGOÑA EHORZKETA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txalixa-Zelai 4-6 behega, ezkerre

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
943 20 10 95 Faxa: 943 20 25 64



**San Andres  
Gozotegia**

• **tartak**  
• **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta 28  
☎ 943 20 79 73

## Simon Aldazabal-en edizio berria

**S**imon Aldazabal lasterketak XIII. edizioa beteko du aurtan, oraingoan Fernando Serrano Klub Deportiboko atleta beteranoa omenduz. Antxixiketaldi hori domeka goizean jokatu da, 10.30etan hasita; eta, Deporretik irteera, Arrateko zelaian amaituko da. Izena eman nahi du-

tenek irteera puntuan eman dezaketeko, guztira bost kilometrotik gora egiteko, betiko lez, %20ko desnibelarekin. Azken edizioetan inoiz baino parte hartzaile gehiago izan dira, 50 lagunetik gora. Gaur egungo markak hausten dituzten gizon-emakumezkoek sari berezia jasoko dute.



Iazko edizioko parte hartzaileak.

## Arratek Logroñon hasiko du denboraldi berria

**M**otorrak ondo berotuta ekingo diote denboraldiari Arrateko jokalariek, Sabadell

Atlántico ligako (orain arte Asobal Allianz Liga zena) lehen jardunaldian Naturhouse La Riojari aurre egiteko. Erri-

xarrekin hasi zuten aurre-denboraldia ere eibartarrek -lehen partidua galdu eta bigarrena irabaziz- eta biharkoan Logroño-ko Kirol Jauregian egin beharko diote aurre partiduari, 20.00etatik aurrera.

etan hasiko da eta jubenilena 12.00etan. Partidu gehien irabazten duenak bereganatuko du torneo; hor berdinketa badago, bietatik gol gehien sartu duen taldea izango da torneoaren irabazlea.

### Ramon Arlisti memoria

Arratek inoiz izan duen jokalaririk handienaren oroitzarreak XI. edizioa beteko du domekan, oraingoan ere -azken urteotakoari jarraituz- Arrate eta Bidasoaren arteko neurketekin. Partidu bi jokatu dira domeka goizean: kadeteena 10.30-

Ramon Aristik hamabost denboraldi egin zituen Arraten jokalaririk moduan eta beste lau jubenilen taldea entrenatzen; horrez gain, Bidasoan ere jokatu zuen 1985-86 denboraldian. Aurreko edizioetatik, sei irabazi ditu Arratek, hiru Bidasoak eta bestea Bilbo-ko Santutxuk.



Iazko Arlisti memoria Arratek bereganatu zuen.

## Teknikazio taldea alpinista gazteentzat

**E**uskadiko Mendi Federazioak Gazte Alpinista Taldeko partaide izan nahi duten gazteei deitzen die, eza-gutza teknikoetan formakuntza eman eta mendiko segurtasunean hezteko helburuarekin. Horretarako, interesatuek federatuta egon beharko dute, 20 eta 27 urte artean izan, hainbat diziplinatan esperientzia izan (mendia, eskia, eskalada) eta urte amaierara arte mendian egiteko 8 bat asteburu es-

kaintzeko aisialdia izan beharko dute.

Eskaera bakoitzarekin, kirol historiala, federatu txartelaren eta NANaren fotokopia, helbidea, telefonoa eta zer klubetako partaide den zehaztu beharko dute interesatuek, goimendieskola@emf-fvm.com helbidera bidaliz. Kirol meritu azpimarragarrienak dituztenak aukeratu dira eta urriaren 4an eta 5ean egingo diren aukeraketa probetarako deituko zaie.



## Nutrizioari buruzko hitzaldia

**H**ilaren 17an Teresa Gaztañaga nutrizionistak Eibar KE-ko harrobiko jokalaririk eta gurasoendako hitzaldia emango du Ipuruako prentsa-aretoan: 19.00etatik 20.00ak arte gurasoendako izango da eta 20.00etatik 21.00ak arte jokariendako.

## Herriko xakelariak Espainiako txapelketetan



Edu Olabe.

**H**aritz Garrok eta Diego Olmok 18 urtetik beherakoen txapelketan parte hartu zuten uda honetan eta bederatzita partidetan lau puntu eta erdi eskuratu zituzten, hau da, lor zitzaizketenen erdiak. Iván Salgado galiziarra -aurretik Elgoibarren eta Donostian nagusi izandakoa- izan zen txapel-

duna, nesketan Claudia Robles andaluziarrak irabazten zuen bitartean. 16 urtetik beherakoen txapelketan, bestalde, Julen Garrok eta Edu Olabek, jardunaldi kopuru berebean, 3'5 puntu eskuratu zuen bakoitzak. Guztira 110 xakelari izan ziren eta Mikel Larreategik epaile lanetan jardun zuen.

## Usobiagak Arco Rock-masterra irabazi du

**G**aur eta bihar Bernan jokatu den Munduko Kopako probarako ondo baino hobetu prestatuta joango da Eibarko eskalatailea, Arco Rock-master bereganatu baitzuen azken asteburuan. Arco sarietarako arlo bitan izendatuta egonda ere, hor ezin izan zuen bat bera ere poltsikoratu; baina lehian oso ondo erantzun zuen eta, bezperan bistaz saiatu beharreko bidean lehen postua eskuratu eta gero, landutako bidea egiterakoan postu horri eutsi eta proba irabazi zuen. Ondoren, lau onenen artean egingako dueluan, Julian Ramon kataluniarrak aurrea hartu zion Patxi Usobiagari eta hau 2. postuan sailkatu zen.

Izendapenak, bide ederrak, txapelketak, dueluak eta garaipenak. Lana ondo egindakoaren fruituak guztiak. Baina Pa-



txik ezingo du hartu atsedean handirik, Munduko Kopako hirugarren proba itxaroten duelako gaur bertan.

## Pelota Eskola martxa bizian

**M**artitzenean hasi zuten Pelota Eskolako ikasturtea, aurreko urteotako ordutegi berarekin. Horrela, astelehen eta eguaztenetan klaseak Armeria Ikastetxean emango dira, 17.00etatik 19.00ak arte; eta ordutegi berean, baina Ipuruako Kiroldegian, martitzen eta egunetan. Monitore lanak Jon Zubizarreta pelotari gazteak egingo ditu; Eibarko Klub Deportiboko pelotari federatua da bera.



Jon Zubizarreta izango da monitorea.

## Just Pump eta Pilateseko erakustaldiak

**J**endeak kirol modalitate horiei buruz informazio zuzenagoa izan dezan, Just Pumpeko eta Pilateseko doaneko erakustaldiak egin dira Kiroldegian aste honetan. Erakustaldi horiek martitzen, eguazten eta atzo bertan egin ziren. Hala ere, kirol modalitate horiek praktikatzeko interesa dutenek kiroldegian bertan eman dezakete izena.



Hiru egunetan eskaini dituzte doaneko erakustaldiak.

## Eibar KE bihar ETBn

**H**uescan jokatu du bihar 2. A mailako foball taldeak Ligako 3. jardunaldiko partidua. Aurkaria Huesca izango da, orain arte jokatuako partidu biak berdindu dituen igoberri taldea. Arratsaldeko 18.30etan hasiko den partidu horretarako, eibartarrek baja garrantzitsua izango dute, Codina aurrelaria lesionatuta baitago. Bestalde, partidu bi irabazita, goi-goian dagoen multzoan dago kokatuta Eibar KE.

EKHI BELAR

Herri Irratia Eibar

Loyola Media

---

Huesca C.F. - Eibar K.E.

Jarraitu partidua:

Borja Rodríguez  
eta Herri Irratiko

kiroletako taldearekin

Irailak 13, zapatua 18.30etan



90.7 Fm

“Utzi jarduna eta erakutsi dakizuna”. Lelo horren pean ireki da lehen apustu-etxea Euskal Herrian, Eibarren zehazki: Kiroljokoa. Herritarren artean jakinmina piztu duen kontua da, berritasun bat delako lurralde hauetan. Gorka Amuategi, apustu-etxearen arduraduna, pozik dago harrerarekin, baina jendea horrelakoetara ohitu gabe dagoela aitortzen du.

## GORKA AMUATEGI, Kiroljokoa-ko arduraduna:

# “Kirola beste modu batean bizitzeko aukera eman nahi dugu”

**- Nolako harrera izan du Kiroljokoa apustu-etxeak Eibarko herritarren artean?**

Poliki-poliki hasi gara. Gauza berria da Euskal Herrian, baina izan duen harrera polita izan da. Uste dut Madrilen bazegoela antzeko apustu-etxeren bat, baina Euskal Herriko lehen da hau eta jendea ohitzen joan beharko da poliki-poliki.

**- Erresuma Batuan ohikoak dira apustu-etxeak. Hemen goekin antzekotasunik gordezten dute?**

Egia esan, nik ez ditut Erresuma Batuko apustu-etxeak ezagutzen, baina hona hurbiltzen da jendea ezagutzen dituen, eta eurek diotenez han gauzak errezagoak dira eta horrelakoetara ohituagoak daude. Antzekotasunik daukan? Ba egia esan, ez dakit, baina ideia orokorra berdina dela esan daiteke, izan ere, ideia handik dator eta gure egin dugu. Hemen, bestetik, kirol euskaldunen gainean apustuak egiteko aukera eskaintzen dugu, bai arraunean, bai pilotan, bai herri-kiroletan.

**- Zer eskaintzen du Kiroljokoa apustu etxeak?**

Kirolen gainean apustuak egitea. Hamaika kirolen artean momentuan apustuak egiteko aukera eskaintzen da hemen, eta hiru apustu mota. Guk nahi duguna da Kiroljokoaren lokal

hau jendearentzat foball, pilota partidu edo beste kirolen bat ikusteko bilgunea izatea, eta era berean, apustuak egiteko. Horrela, kirolak beste modu batean bizitzeko aukera eman nahi da. Etorkizun batean, zuzenean apustuak egiteko aukera egongo da.

**- Apustuak egiteko orduan aholkuak ematen dituzte?**

Bai. Hemen hiru pertsona egoten gara, eta gure lana jendeari apustuak nola egiten diren azaltzea, apustuetan dituzten aukerak argitzea eta lortutako dirua nola pilatu edo eskuratu dezaketen esatea da. Bestetik, badago jendea, nagusiak gehienbat, makinari ukitu nahi ez duena, orduan, mostradore eta etorri eta guk egiten diogu nahi duen apustua.

**- Apustuan ibiltzeko tradizio handiko herria da euskalduna.**

Betidanik egon da apustuak egiteko ohitura Euskal Herrian eta guretzako seinale ona da hori. Bai pilotan, bai arraunean, bai bestelako kirolean apustuak egitea oso ohikoa da Euskal Herrian, baina beste kontu bat da apustu horiek guk eskaintzen dugun eran egitea ohitzea.

**- Kiroljokoaren lokal hau Astelena frontoitik metro eskas batzuetara kokatuta egoteak zerbait esan nahi du?**

Oso ondo datorkigun kontua



Amuategi jokoa egiteko prestatutako makina baten ondoan. Herriko beste lau tabernetan kokatu dituzte halakoak.

da frontoi ondoan egotea, baina ez da aurretiaz pentsatutako ezergaitik izan. Beste aukera batzuk zeuden lokalaren kokalekua zehazteko orduan, baina azkenean Isasi kalean ipintzea erabaki zen eta pozik gaude.

**- Apustu-etxean egoteaz gain, herriko hainbat tabernetan apustu etxerako makinak aurki daitezke. Jendea apustuak egitera 'berotzeko' leku ezin hobekak.**

Orain, Kiroljokoak denbora gutxi daramanez, uste dut jendearentzat errazagoa dela tabernetan apustu egitea hona etortzea baino. Agian hementik urte bitara jendea ohituko da apustu etxera etortzera, baina, momentuz, jendeari trago pare batekin taberna batean apustu egitea errazagoa egingo zaiola uste dut. Hala ere, jendea hona erakartzea nahiko gurek, horrela, hona partiduren bat ikustera bokadiolarekin-edo etorri daiteke edonor, adibidez.

**- Zein tabernetan aurkitu dai-**

**tezke Kiroljokoaren makinak?**

Zubi-Gain, Trinkete, Ametsa eta Xanian ipinita daude, eta Sokoa eta K-OXen ipintzean.

**- Gehiago ipintzeko asmoa daukazue?**

Momentuz ez, baina etorkizunean ikusiko da.

**- Bestetik, Kiroljokoaren egoitza Azitaingo poligonoan aurkitzen da. Zer egiten da bertan?**

Bertan, apustu guztien datuak jasotzen dira. Gainera, kirol-aditu talde bat ere dago apustuen koefizienteak zehazten dituen, kirol-kazetariak daude... Bertatik koordinatzen da Kiroljokoa enpresa, gehienbat.

**- Apustu hauekin diru asko irabazi daiteke?**

Berez asmoa ez da diru asko irabaztea, ez da aberasteko modu bat, diru kopuru eder bat eskuratu daiteke, baina besterik ez. Bestetik, apustu arduratsua sustatu nahi dugu, eman daitezkeen menpekotasunak ekidituz. Gauza da kirola beste era batean ikustea.



## Goi mailako gitarra kontzertua Coliseoan

**A**ndrea González gazte eibartarrak eta Joaquín Clerch gitarra-jole eta irakasleak elkarrekin kontzertua eskainiko dute datorren astean, irailaren 19an Coliseo antzokian, bertako udazkeneko programazioari hasiera emanez. 20.30etan hasiko den gitarra-emanaldiak goi mailako musikari bi elkarrekin jotzen ikusteko aukera paregabea eskainiko dio jendeari. Umetatik gitarra joteko trebetasun ikaragarria izan duen Andreamen gaztetasunari Joaquín Clerch-en esperientzia eta teknika gehituko zaizkio zati bitan banatutako egitarauan: lehenengo zatian maisuak jardungo du, A. B. Mangoré-ren 'La Catedral', Astor Piazzolla-ren 'Cinco piezas' ('Campero', 'Romántico', 'Acentuado', 'Tristán' eta 'Compadre') eta N. Paganini-ren 'Capricci 5, 24' piezekin. Bigarren zatian, berriz, Andrea González-ek 'Alfonsina y el mar' Clerch-en konponketa eta Fernando Sor-en 'Gran solo' eskaini-



EKHI BELAR

**Andrea Gonzalezek bere irakaslearekin emango du ikasturteko Coliseoko lehenengo kontzertua.**

ko ditu bakarrik eta, ondoren maisuarekin batera, Albéniz-en 'Piezas españolas' eta Astor Piazzolla-ren 'Tango suite' (2 eta 3 zenbakidun tangoa) interpretatuko ditu. Sarrerak 10 euro balio du eta ohiko bideei jarraituta eskuratu daitezke.

## Kantabriako Etxekoak jairako girotzen

**U**teroko moduan, irailaren Bien Aparecida ama birjinaren jaia ospatuko dute Eibarko Kantabriako Etxeko bazkideek. Ekitaldi nagusiak irailaren 27 eta 28an pilatuko diren arren, biharko hainbat ekitaldi prestatu dituzte, jairako girotzen joateko. 17.30etan Kantabrian jarraitzaile ugari duten jokoen inguruko txapelketak jokatzen hasiko dira lpuurako bolatokian: toka, igel-toka eta 'cuchillo'. Ondoren, 20.00ak aldera eta azken urteotako ohiturari jarraituta, sardina-jana egingo dute han ber-



LEIRE ITURBE

tan. Iraileko azken asteburuko egitarauari begiratuta, berriz, zapatuan egingo den La Esperanza de Requejo (Kantabria) abesba-

tzaren emanaldia eta domekako meza, piskolabisa eta lagunarteko bazkaria izango dira protagonista nagusiak.

## Sara-ra txangoa

**B**eheko Tokia jubilatutako etxeak Sara-ko kobazuloak ezagutzera joateko txangoa antolatuta du irailaren 27rako. Irteera 09.00etan izango da eta, kobazuloak

ikusteaz gain, Ibardin-en bazkaldu eta Donibane Lohitzunen buelta bat emateko aukera izango dute parte hartzea erabakitzen dutenek. Intersatuak martitzen eta eguene-

tan eman dezakete izena, bulego ordutegian (11.30etatik 12.30etara). 15 euroko prezioa izango du bazkideentzat eta 25 eurokoa bazkide ez direnentzat.

## Laburrak

### ARRATEKO ZOZKETA

Jaixak herrixak herrixandako ekimenak Arrateko jaietan egindako zozketan hauek izan dira saritutako zenbakiak: lehenengo saria 0332 zenbakiarentzat izan da eta bigarrena 2982 zenbakiarentzat. Irabazleak zozketaren antolatzaileekin harremanetan ipini behar dira, saria jaso ahal izateko.

### SOROSLE IKASTAROA

Eibarko DYA-k sorosle ikastaroa emango du irailaren 29an hasi eta urriaren 20ra arte, astelehenetik barixakura, 19.30etatik 21.30etara. Ikastaroa elkarrekin Eibarren duen egoitzan garatuko da (Pagaegi, 5 behea). Ikastaroa eginez gero, unibertsitateko ikasleek kreditu bi eskuratu ditzakete. Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu 943464622 telefono zenbakira.

### KEZKA-N IZENA EMATEA

Kezka Dantza Taldean euskal dantzak ikasteko 2008-09 ikasturteko matrikulatze epea datorren irailaren 15ean zabalduko da. Portaleko 3. solairuan eman ahal izango da izena irailaren 15ean, 16an eta 17an, 18.00etatik 19.30etara. 6 urtetik gorako ikasleek eman dezakete izena Kezka Dantza Taldean.

### EIBARKO IRUDIAK ETB-2AN

Astelehenean (irailak 15), ETB-2ko 'Mi querido Klikowski' telesaillean, maiatzean Txaltza Zelai inguruan grabatu zituzten sekuentziak jaso dituen atala emango dute 22.00etatik aurrera. Sekuentzia horietan hainbat eibartarrek figurante gisa hartu zuen parte. Bestalde, ETB-1eko Kalaka saioak udazkenean ekingo dio ikasturteari eta, aurrekoetan bezala, eguazten gauetan Miramongo estudioan zuzenean egiten den saiora ikusle gisa joateko aukera izango da. Interesa dutenek 944570000 telefono zenbakira deitu dezakete (Berta) edo lopez\_berta@eitb.com helbidera idatzi.

**Garitano**

1957an sortua

GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetak TARTAK

Julian Etxeberria, 6  
Tel. 943 20 24 51

**pr publi resa**

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net



## Ikasturte berria

**I**ker eta Jon laster hasiko dira berriro eskolan. Oraindik ez dute hiru urte bete baina dagoeneko ohituta daude eguneroko eskolara joaten eta andereño eta laguntxoaren izenak ederto ezagutzen dituzte. Bi-kiak dira, lagun batzuen seme-ak, eta gela ezberdinetan banandu dituzte ikastolan. Batzuetan ez hain ondo eta beste zenbaitetan hobeto, hango eginkizunak eta obligazio txikiak betetzen dituzte. Bakoitzak bere erara, izaera propioa baitaukate. Batak ondo baino hobeto meriendatzen du, baina dexente kostatzen zaio lokartzea. Besteak berriz, ausartagoa izanik, anaia defenditzen du nagusiagoen aurka. Eskuzabalagoa da bata. Berritsuagoa bestea. Maitagarriak biak. Oso ezberdinak baina.

Eskolan eta parkean orain, institutuan aurrerago, ume bi hauek bat egingo dute euren adineko lagunekin. Hor egongo dira Txinatik etorritako Lorea izeneko neska, Marokon jaiotako Assef, amarekin Kubatik etorri zen Marina, ilehori eta azal txuri-txuriko Igor... Hauek bai ezberdinak, ezta? Iker, Jon, Lorea, Assef, Marina, Igor, German, Ainara, Danel, Lide, Maitane eta beste asko izango dira denbora gutxi barru herria osatuko dutenak. Guk urrats bat atzera egin behar dugunean eurek hartuko dituzte gure lanpostuak, beteko dituzte tabernak eta kiroldegia, dendak izango dituzte... Eta etorriko den gizarte berri horrek jakin-min ikaragarria sortzen dit. Irekiagoa izango al da? Eskuzabalagoa? Ikasiko dut euren ohiturak ulertzen? Jakingo dut horretara egokitzen? Oraindik, behintzat, pentsatu nahi dut baietz.

**Jorge Beorlegi**

## Kirol taldeak, eskola agendaren ardatz

**D**atozen egunotan hasiko dira banatzen ikasturte berrirako Eskola Agenda herriko ikastetxeetan. Martitzenean aurkeztu zuten 3.400 aleko tirada duen aurtengo edizioa Ana Rodríguez Fouz kirol zinegotziak eta Euskara batzordeko Junkal Txurruka teknikariak, herriko kirol elkartetako ordezkariekin batera. Hilabete bakoitza herriko kirol talde bati eskaini diote: iraila Urki foball taldeari, urria Urbat igeriketa taldeari, azaroa rugbiari, abendua, otsaila eta ekaina Klub Deportiboko xake, atletismo eta txirrindularitza taldeei, hurrenez hurren, urta-



ERKI BELAR

rrila gimnasia erritmika taldeari, martxoa Arrate eskubaloitaldeari, apirila Kalamua judo taldeari eta maiatza Eibartarrak foball taldeari. Talde bakoitzaren irudiekin apaindu dituzte

koadernoaren orriak. Agendak eguneroko kontuak jasotzeko tartea izateaz gain, ikasturtean zehar garatuko diren jardueren eta intereseko beste gaien inguruko informazioa dakar.

## Galiziera eta hango dantzen inguruko ikastaroak

**A**s Burgas Galiziako Etxeak ikastaro bi hartuko ditu hemendik egun gutxira: Galiziako dantzen inguruko ikastaro



trinkoa (15 egun) eta Galiziera ikastaroa (CELGA 1), biak ere Galiziako Xunta-k diruz lagundutakoak. Ikastaroetan nahi duenak eman dezake izena. Dantza ikastaroan interesa duenak Galiziako Etxeko tabernara jo dezake do, bestela, 19.00etatik aurrera 618113916 telefono zenbakira deitu (Julián Gutierrez). Galiziera ikasi nahi dutenek, berriz, tabernan eman dezakete izena edo, nahiago izanez gero, 646256530 telefonora deitu (Nati). Galiziera ikastaroa noiz hasiko den zehazteke dago, baina dantza ikastaroa seguruenik irailaren 16an edo 17an hasiko dela aurreikusten dute arduradunek.

## Literatura solasaldiak Portalean

**J**uan San Martin Liburutegiak literatura solasaldiak antolatuko ditu ikasturte honetan ere. Liburutegiko arduradunek adierazi dutenez, *taldekide guztien artean aukeratutako liburuen gainean jardungo da, ez da literaturan aditua izan behar*. Solasaldiak irailaren 30etik aurrera, hamabostean behin, martitzenetan izango dira,

Portalean. Ekainaren 16ra arteko iraupena aurreikusitako solasaldi-programazioari. Interesa duenak irailaren 25era arte eman dezake izena Pegoran. Ikasle kopurua mugatua izango da (30 lagun gehienez). Parte hartzaile bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du, Eibarren erroldatua egonez gero eta, bestela, 25 euro.


## Harixa Emoten martxan

**H**arixa Emoten... eta kitto! Euskara Elkartearen egitasmoa indar berrituta eta aldatuta dator. Literaturaren inguruko tertuliek gehiago landu nahi dituzte taldekideek eta, horretarako, Antxon Narbaizaren laguntza izango dute. Narbaizak, liburua irakurtzen hasi aurretik, pista

batzuk emango ditu, liburuari mami guztia atera ahal izateko. Ikasturteko lehenengo liburua Andu Lertxundiren 'Ihes betea' izango da. Tertulia azaroan egingo dute. Egitasmoan parte hartzeko nahikoa da irakurtzeko gogoia izatea. Interesatuak 943200918 telefonora (Maidar) deitu dezakete.




ERKI BELAR



## Elexpururen koadroak Topalekuan

Arrate Kultur Elkarteak gaur inauguratuko du ikasturtea, Idola Elexpururen koadroekin. Erakusketa ohiko ordutegian egongo da zabalik, irailaren 21era arte: astegunetan, 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



Elzaga Portalean.



Lorofio Deporren.



De Quincey Ambigún.

## Argazki erakusketak herriko tabernetan


Irailaren 1az geroztik eta hilabetea amaitu bitartean, hiru argazkilariren lanak ikusgai daude herriko tabernetan: El Ambigún-n De Quincey argazkilaria ateratako argazkiak ikus daitezke, Klub Deportiboko tabernan J. F. Loroñorenak eta Portalea tabernan, berriz, Vicente Eizagaetxerriarenak.



## Deporreko argazkilariak Portalean

Kultur etxeko erakusketa aretoan ikasturtea gaur abiatuko da, Klub Deportiboko argazki taldeko kideen lanen erakusketarekin. Gaur arratsaldeko 19.00etan inauguratuko duten eta irailaren 28ra arte martxan egongo den erakusketan Klub Deportiboko 24 argazkilariren lanak batu dituzte, estilo eta gai orotarikoak. Egileen artean, berriz, honez gero oso ezagunak diren izenekin batera bazkide berrienak ere aurki ditzakegu. Erakusketa ohiko ordutegian ikusi ahal izango da: martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

*Portaleko obren eraginez, iaz ez zen argazkilaritza ikastarorik izan; aurten maila bitan banatuta itzuliko dira, J. Valderrey eta A. Luqueren eskutik: lehen urratsena urriaren 13tik azaroaren 19ra, astelehen eta eguaztenetan; hobekuntza maila, urriaren 14tik azaroaren 20ra, martitzen eta eguaztenetan (49 eurotan bi ikastaroak).*



## JOSE VALDERREY, ARGAZKILARIA: "Orain merkeagoa da argazkiak ateratzea"

*- Urte bateko geldinearen ondoren, bi kurtso ezberdinen bidez irakatsiko da argazkilaritza herrian. Zeintzuk dira ikastaroen helburuak?*

20 urte daramatzagu ikastaro hauekin eta denbora honetan zehar aldaketa nagusi bat egon da, argazkilaritza analogikotik digitalera pasatzea. Horren barruan, aurten aurrerapauso bat eman nahi izan dugu, horrela, argazkilaritzaren gainean ezaguerak zituztenei jarraipena eman nahi izan diegu. Bestetik, argazkilaritza digitala hasiera hasieratik ulertzeko, bere inguruko oinarriko kontuak ere azalduko ditugu: batera nola kargatu, argazkiak ordenagailura deskargatu, argazkiei izena eman... Baina hasierako pausua, eta garrantzitsuena, argazkia ateratzea da. Horrela, gauzak argazkilaritza ikuspuntu batetik ikusten irakasten saiatuko gara.

*- Nolako da ikastaroetara doan jendearen profila?*

Ikastaro hauek jende guztiari zuzenduta daude. Adin, lanbide eta heziketa ezberdineko jendea etortzen da ikastaroetara. denok dutelako horretarako eskubidea.

*- Informatikak bere garrantzia dauka egungo argazkilaritzan.*

Bai, argi dago. Argazkilaritza digitala jorratzean, informatikari erreparatuko diogu ikastaro hauek. Horrela, informatikak darabilen hizkera irakatsiko dugu, eta baita nola informatikako baliabideek argazkilaritzan laguntzen duten. Oinarriko kontuak izango dira, ez gara maila

profesional batera iritsiko, baina piska bat haratago joan nahi izanez gero, hobekuntza mailako ikastaroa eskaintzen dugu, Alberto Luquek emango duena.

*- Hobekuntza maila horretan, zer irakatsiko da.*

Ba, monitore bat nola kalibratzen den argazkia zuk ikusten dituzun kolore berdinekin ateratzen dadin, argazkiak erretokatzen gakoak, adibidez. Bestetik, aurreko galderarekin era batean lotuz, software libreko programak erabiliiko dira maila honetan ere. Oso ongi daude programa hauek, izan ere, inor ezin izango da argazkia erretokatu gabe gelditu programa bat erosi ezin duelako edo dena delakoa.

*- Argazkilaritza digitalak argazkilaritza bera hedatu du?*

Orain argazkiak egitea merkeagoa da, internet bidez aukera gehiago dago argazkilaritza ikasi eta gozatzeko, eta baita zure argazkiak elkarbanatzeko ere. Orain argazki gehiago dago eta, bat gustatu ezean, beste bat atera daiteke kamerak argazki ugari atera ditzaketelako euren memoria handia dela-eta.

*- Zaila da kamera digitaletan eskaintzen duten guztiari zukua ateratzea?*

Agian bai. Azken finean hor hizkera bat dago eta askok ez dute ondo ulertzen. Horrela, kontua piska bat interesatzea edo ikastea izango litzateke, eta gutxinaka zure kamerak eskaintzen duenaz gozatzea. Argazkilaritza ezer gutxi jakin gabe ere gozatu daiteke argazkilaritza.



**telefono jakingarriak**

SOS deiak.....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa .....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak....	943 46 46 22
Gurutze Gorria....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua .....	943 03 26 50
Errepideak .....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak .....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkoholiko Anonimoak .....	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen .....	650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egurnero: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egurnero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **EIBAR-GASTEIZ.** Egurnero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egurnero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.15. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.45. Domeka eta jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaiegunak: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenerik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 06.50-etik 21.50-era orduro. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 07.55-etik 21.55-era orduro.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-BILBO.** Lanegunak: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. **EIBAR-DURANGO.** Egurnero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Lanegunak: 05.47etatik 20.47etara orduro.

**eguraldia**

*Euskal Meteorologia Agentziatik*

**EGUZKIA JAUN ETA JABE**

ZAPATUAN laino ugari izango da zeruan eta ez diote eguzkiari irtetzen lagako. Temperaturari dagokionez, ez da aldaketarik espero. **DOMEKARAKO,** berriz, eguraldiak hobera egingo du: eguzkia nagusituko da egun osoan eta tenperaturak gora egingo du.

**13  
zapatua**

**BIEN APARECIDA**

**17.30.-** Bien Aparecida ama birjinaren jaia. Toka, igel-toka eta 'cuchillo' txapelketa. 20.00.- Sardina-jana. Ipurua bolatokian.

**14  
domeka**

**KOFRADIA  
ETA BASERRITAR  
JUBILATUEN EGUNA**

**10.30.-** Simon Aldazabal XIII. Antxixiketaldia. Fernando Serranori omenaldia. Irteera: Klub Deportibotik. Hel-muga: Arraten (Orbeko bidetik). **11.00.-** Meza Nagusia, Gorrotxategi eta Narbaiza bertsolariekin. Meza ostean, aureskua Kezka dantza taldekoen eskutik. Prozesioa, Usartza Txistulari Bandak lagunduta. **12.00.-** Pelota: Arrillaga-Bengoetxea / Etxaniz-Egaña (Klub Deportiboak antolatuta). **12.00.-** Paella eta gazta lehiaketa. **12.30.-** Dantza solte txapelketa (15 urtetik beherakoentzat), Ezenarro eta Agirrebeña trikitilari-ekin eta Usartza Txistulari Bandarekin. **14.00.-** Paella eta gazta lehiaketen sari banaketa. **14.30.-** Jubilatuentzako bazkaria. Baserritar nagusiei opariak banatzea. Trikitilari eta bertsolariak. Kantabria jatetxean. **17.30.-** Idi probak.

**17  
eguztena**

**IPUIN-KONTALARIA**

**18.00.-** 'Iturri amaitezina' umeentzat ipuin-kontalari saioa, Teresa López de Muniainekin (euskeraz). Sarrera librea. Caja Navarran (Erreal, 22).

**18  
eguna**

**PRENISAURREKOA**

**19.00.-** ...eta kitto! astekariaren 20. urteurrenaren barruan, Aztiker-ek egindako inkestaren emaitzen berri emateko. Portaleko areto nagusian.

**Ikastaroak eta izen-emateak**

**Sukaldaritza hasiberrientzat**

**Norentzat:** 16 urtetik gorakoentzat. **Non eta noiz:** irailaren 29tik aurrera, astelehen eta eguaztenetan, 19.00etatik 21.00etara Portalean. **Prezioa:** 37 euro Eibarren errolatuta daudenentzat eta 45 euro gainontzekoentzat. **Izen-emateak eta informazioa:** irailaren 15etik 26ra Pegoran.

**Begirale titulua ateratzeko ikastaroa**

**Norentzat:** 18 urtetik gorakoentzat. **Prezioa:** 440 euro (erdia bueltan jasotzeko aukerarekin). **Izen-emateak eta informazioa:** irailaren 15era arte Pegoran.

**Argazkilaritza digitala (lehen urratsak)**

**Non eta noiz:** urriaren 13tik aurrera, astelehen eta eguaztenetan, 19.00etatik 21.30etara. **Prezioa:** 49 euro Eibarren errolatuta daudenentzat eta 65 euro gainontzekoentzat. **Izen-emateak eta informazioa:** irailaren 22tik urriaren 8ra Pegoran.

**Argazkilaritza digitala (hobekuntza)**

**Non eta noiz:** urriaren 14tik aurrera, martitzen eta eguenetan, 19.00etatik 21.30etara. **Prezioa:** 49 euro Eibarren errolatuta daudenentzat eta 65 euro gainontzekoentzat. **Izen-emateak eta informazioa:** irailaren 22tik urriaren 8ra Pegoran.

**Dibujo Udal Eskolarako matrikula**

**Izena emateko epea:** irailaren 19ra arte. **Non:** Pegoran.

**Musika Eskolarako matrikula**

**Izena emateko epea:** irailaren 19ra arte. **Non:** Pegoran.

**Zeramika Udal Eskolarako matrikula**

**Izena emateko epea:** irailaren 23ra arte. **Non:** Pegoran.

**Menpekotasunari aurre egiteko ikastaroa**

**Norentzat:** pertsona nagusientzat. **Noiz:** irailaren 29tik abenduaren 19ra arte, astelehen eta eguaztenetan. **Izena emateko epea:** irailaren 25era arte, Pegoran.

**Espainiako margolaritza bikainena ikastaroa**

**Non eta noiz:** urriaren 14tik aurrera, astelehen eta eguaztenetan, 10.00etatik 11.30etara Musika Eskolan. **Prezioa:** 28 euro Eibarren errolatuta daudenentzat eta 45 euro gainontzekoentzat. **Izena emateko epea:** irailaren 15etik urriaren 8ra arte. Pegoran.

**Musika-gela: musikaz jakin eta gozatu**

**Non eta noiz:** urriaren 13tik aurrera, astelehenetan, 19.00etatik 20.30etara Musika Eskolan. **Prezioa:** 28 euro Eibarren errolatuta daudenentzat eta 45 euro gainontzekoentzat. **Izena emateko epea:** irailaren 15etik urriaren 8ra arte. Pegoran.

**Udal Euskaltegia**

**Izena emateko epea:** irailaren 23ra arte. **Informazioa eta izen-emateak:** Udal Euskaltegian.

**AEK Euskaltegia**

**Izena emateko epea:** irailaren 26ra arte. **Informazioa eta izen-emateak:** AEK Euskaltegian.

**Kezka dantza taldea**

**Izen-emateak:** irailaren 15, 16 eta 17an, 18.00etatik 19.00etara Portalean.

**Afariketan**

**Izen-emateak:** irailak 22 eta 23an, 16.00etatik 18.00etara Amaña, Urki eta Urkizuko ludoteketan eta irailaren 24tik 26ra, 10.00etatik 13.00etara, Portalean. **Informazioa:** Astixa.

**Helduen irakaskuntzarako matrikula**

**Izena emateko epea:** irailaren 16ra arte, 16etatik 20.00etara Helduen Irakaskuntza Zentruan (Isasi, 39).

**Literatura solasaldiak**

**Non eta noiz:** irailaren 30etik aurrera, hamabostean behin, martitzenetan, Udal Liburutegian. **Prezioa:** 20 euro Eibarren errolatuta daudenentzat eta 25 euro gainontzekoentzat. **Izena emateko epea:** irailaren 11etik 25ra arte. Pegoran.



## erakusketak

### Irailaren 21era arte

Idoia Elexpururen margo erakusketa. **Topalekuan.**

### Irailaren 28ra arte

Klub **Deportiboko Argazki Taldekoen** argazki erakusketa. **Portalean.**

### Irailaren 30era arte

Argazki erakusketak: **Quincey.** El Ambigún. **J. F. Loroño.** Deporren. **Vicente Eizagaetxeberria.** Portalea tabernan.

**Cristina Azpiriren** margo erakusketa. Plaza Café Buen Pastor jatetxean (Donostian).

## lehiaketak

### XIX. Toribio Etxebarria Sariak

Eskaerak egiteko epea: **urriaren 7ra arte.** Informazioa eta lanak entregatzea: Bic Gipuzkoa Berrilan.

### VIII. Juan San Martin beka

Ikerketa-esparruak: artea eta mendizaletasuna. Eskaerak egiteko epea: **urriaren 10era arte.** Informazioa: Pegoran eta Portalean.

### Asier Errasti Eibarko IX. Laburmetraia Jaialdia.

Lanak aurkezteko epea: **urriaren 11ra arte.** Informazioa eta lanak entregatzea: Pegoran.

### Indalezio Ojanguren XXI. Argazki Lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: **urriaren 13ra arte.** Informazioa eta lanak entregatzea: Pegoran.

### Sanandresak 2008 kartel lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: **urriaren 23ra arte.** Informazioa eta lanak entregatzea: Pegoran.

## dirulaguntzak

### Umeak Eskolara 2008-2009

Onuradunak: 1993ko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31a bitartean jaiotakoak. Zenbatekoa: 60'10 euro. Eskaerak egiteko epea: **abenduaren 1era arte.** Informazioa eta eskaerak: Pegoran.

### Dirulaguntzak ikasleei 2008

Onuradunak: 1983ko urtarrilaren 1etik 1992ko abenduaren 31a bitartean jaiotakoak. Eskaerak egiteko epea: **abenduaren 1era arte.** Informazioa eta eskaerak: Pegoran.

## ...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, TEODOSIO Sarobe eta ALICIA Garcia, hillaren 15ian ezkondu zinaziela 50 urte beteko dozue-eta. Famelixaren partez.

## denborapasak

4	5	9	2		6	8	3
				1		5	9
6	3		5			4	2
	9				8		
	6	3	9			2	8
		5	7	3	1	9	6
	4	7	1	9	2	6	
	8	6	4	5		7	1
		2	8			3	4
							9

	1	5			9	3	
2	8						1
		3			1	6	
4							9
			6				3
	7	1			2		8
8	2				6	1	
5		9	8				
		7	4			5	6

Hona hemen SUDOKU bi. Berotzeko, ezkerrekoarekin hasi zintezkete, gero eskumakoarekin jarraitzeko.

## zinemazinema



## untzaga

"El tren de las 3.10"

ZUZENDARIA: **James Mangold**  
PERTSONAIK: **Russell Crowe, Logan Lerman, Christian Bale, Ben Foster...**

Dan Evans-ek oso zorte txarra izan du azken aldian eta bere etxaldea galdu egin behar du. Lan eskaintza garrantzitsua egingo diote, Ben Wade gaizkilea Yumara eramango duen trenean zaintzaile lana egin beharko du...

## farmaziak

### 12. barixakua

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

### 13. zapatua

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

### 14. domeka

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

### 15. astelehena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### 16. martitzena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

### 17. eguaztena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

### 18. eguena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

### 19. barixakua

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

## hildakoak

- Cesareo Montaño Robla. 58 urte. 2008-VIII-7.
- Bautista Otaegi Labaka. 79 urte. 2008-IX-2.
- Francisco Unanue Jauregi. 74 urte. 2008-IX-4.
- Hortensia García Fariñas. 89 urte. 2008-IX-5.
- Eugenia Larrañaga Eguren. 102 urte. 2008-IX-5.
- Aurelia Lasa Txurruka. 80 urte. 2008-IX-6.
- Julian Agirre Ibarzabal. 80 urte. 2008-IX-7.
- Juanita Gisasola Santos. 85 urte. 2008-IX-8.
- Candido Baskaran Azpitarte. 81 urte. 2008-IX-8.
- Isabel Marañón Cañizo. 87 urte. 2008-IX-9.
- Alfredo Latasa Agirre. 82 urte. 2008-IX-10.

## jaiotakoak

- Zuhaitz Barbarrubio González. 2008-VIII-25.
- Laura Marta Aranzabal Miguel. 2008-VIII-28.
- Uxue Martín Bravo. 2008-VIII-29.
- Uxue Zelaia Andonegi. 2008-VIII-31.
- Gaizka Zuazo Zuazua. 2008-IX-1.
- Raul Gómez García. 2008-IX-4.

## ETXEBIZITZAK

- Amañako erdigunean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukalde, komuna eta terraza. Kalefakzio zentrala. Tel. 607-310266 edo 635-700904.
- Ubitxan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Gas naturala. Ilogailua. 25.000.000 pta. Tel. 659-088244.
- Eibarren lagun bat behar da pisua konpartitzeko. Tel. 646-114550.
- Eibarko erdialdean atikoa salgai. Ganbararekin. 40 m<sup>2</sup>. Ilogailua. Dena berriztua. 25.000.000 pta. Tel. 651-678454 edo 943-254117.
- Ubitxan buhardila alokagai. Deitu 22.30etan. Tel. 634-453097.
- R. Galdosen pisua salgai. Logela bi, egongela, sukalde, komuna eta despentsa. Jantzita. Dena kanpora begira. Tel. 639-748114.
- Gasteizen pisua alokagai. Unibertsitate inguruan. 3 logela. 990 euro. Tel. 657-717251.
- Logela eskaintzen da pisu konpartituan. Tel. 625-265942.
- Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 671-197999 edo 671-177278.

## LOKALAK

- Legarren garaje itxia salgai. Tel. 685-726213
- Garaje plaza alokagai Urkizuko dorreetan. Tel. 609-453946. Juan Mari.
- Eibarko Injeniaritza enpresa batek 100 m<sup>2</sup>ko lokala erosiho luke. Auto sarbidea beharrezkoa. Tel. 605-771570.

## AUTOAK

- Opel Astra salgai. Zuria. 5 ate. 1997koa. 187.000 km. Egoera onean. 1.200 euro. Tel. 654-678454 edo 943-254117.
- VW California furgoneta salgai. 2.5 TDi. 99koa. 117.000 km. Guztiz jantzita. Extrakrin: berogailua, llantak, komun kimikoa, bizikiletak eramatekoa... Tel. 665-732069.

## ANIMALIAK

- Sei txakur-kume oparitzen dira (Gorbeia arrazako ardi-txakurra). Tel. 943-203205.

## BESTELAKOAK

- Abuztuaren amaieran Ipuruako foball zelaiaren inguruan honako argazkia aurkitu zuten. Tamaina txikikoa bada ere, galdu zuenarentzat balioa izan dezakeelakotan, ...eta kitto!-ra ekarri digute. Jabeak gure bulegoetan jaso dezake.

## SALEROSKETAK

- Antxintxika egiteko makina salgai. Tel. 656-789221.
- Kabezala salgai. Engel Fireball modelo. 60w. Berria. Prezio onean. Tel. 620-684242.

## LANA

- Banatzaileak behar dira ...eta kitto! astekaria banatzeko. Tel. 943-200918.
- Pertsona behar da garbiketara lanetarako. Autoarekin. Tel. 679-950907.
- Mutila eskaintzen da baserriko lanak egiteko. Tel. 663-159751.
- Mutila eskaintzen da ostalaritzan, erakuntzan edo lorazaintzan lan egiteko. Tel. 689-144723.
- Mutila eskaintzen da lantegian, banaketan edo beste edozein lanetarako. Tel. 638-344377.
- Neska eskaintzen da gauzez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 671-972733.
- Neska behar da arratsaldez umea zaindu eta etxeko lanetarako. Euskaraz jakitea beharrezkoa. Tel. 629-267377. Maite.
- Kamarera behar da, autoarekin. Tel. 679-950907.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Tel. 645-007388.
- Ileapaintzailea behar da. Tel. 943-254512.
- Emakumea behar da 09.00etatik 13.00etara umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 669-577005.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 677-860971.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-897639. Brasi.
- Neska eskaintzen da arratsaldez eta asteburuetan edozein lanetarako. Tel. 686-127137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko arratsaldez. Tel. 696-651591.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Interna edo externa. Tel. 638-233739.
- Magisteritzan diplomatuak klase partikularrik emango lituzke LH eta DBHko 1. eta 2. mailan. Tel. 605-743415.
- Pertsona behar da egunean lau orduz (goiz edo arratsalde) ume bi zaintzeko. Autoarekin. Tel. 646-668659.
- Emakumea behar da 07.30etatik 11.30etara ume bat zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 666-232557.

- Emakume arduratsua eskaintzen da etxetan lan egiteko. Tel. 665-726288.
- Gizona eskaintzen da peoi edo garbiketara lanak egiteko. Tel. 69-069693.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan etxean lan egiteko. Tel. 695-639296.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 943-029329 edo 675-126079.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta era guztietako garbiketara lanak egiteko. Externa. Tel. 943-029329 edo 685-711629.
- Spinning monitorea behar da UGAN Klub gimnasioan. Tel. 943-820452.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta kamarera moduan lan egiteko. Tel. 686-435056.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako: etxeko lanak egin, umeak edo nagusiak zaindu... Tel. 662-213368.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Externa moduan. Tel. 670-674641.
- Euskarazko irakaslea behar da mintzapraktika egiteko. Tel. 653-735874.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 616-690415.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 652-761881 edo 695-751648.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 696-659622.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 680-871529. Flavia.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 660-441505.
- Gizona eskaintzen da igeltsero laguntzaile edo peoi lanetarako. Tel. 638-344377.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Externa moduan. Tel. 645-359279.
- Emakume arduratsua eskaintzen da gauzez nagusiak zaindu eta esperientzia. Tel. 650-034445.
- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. 07.30etatik 11.30etara. Tel. 629-222970.
- Emakume euskalduna behar da 11.30etatik 16.00ak arte etxeko lanak egiteko. Tel. 696-781138.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Externa moduan. Tel. 688-610601.
- Ingeleseko irakaslea behar da Eibarko akademia batean. Tel. 605-716717.

- Emakumea eskaintzen da orduka etxeko garbitzeko. Tel. 630-531469.
- Neska euskalduna behar da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Autoarekin. Tel. 686-703907.
- Neska behar da ume bi eskolara eramateko. 08.00etatik 09.30etara. Tel. 943-203205.
- Emakumea behar da ume bi zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 677-858244.
- Neska eskaintzen da arratsaldez edo asteburuetan umeak edo nagusiak zaindu eta kamarera moduan lan egiteko. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta kamarera moduan lan egiteko. Tel. 697-869958.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako 17.00ak arte. Tel. 690-025614.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako 17.00ak arte. Tel. 686-435056.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Esperientzia. Tel. 638-515953.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Orduka edo egun osoz. Tel. 608-833118.
- Neska bi eskaintzen dira umeak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 691-530110 edo 943-127382.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 691-530112.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Interna moduan. Tel. 671-742142.
- Emakumea eskaintzen da baserrian, jate-txean... interna moduan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 636-139448.
- Emakumea eskaintzen da baserrian, jate-txean... interna moduan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 689-161241.
- Mutil gaztea eskaintzen da kamarero edo sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 678-079332.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 672-111979.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Externa moduan. Tel. 943-029329 edo 685-711629.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaindu eta sukalde laguntzaile moduan. Tel. 699-576107.



Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

Iragarkiak ipintzeko:  
**943-200918 (Marisol).**

# ZEZEN BIDE AUTO ESKOLA



**Auto, autobus, kamioi eta motorrentzako gida-baimenak  
Teorikako irakaslea egun osoan**



## GIDA-BAIMENAK

**Ego Gain, 4 - behea**

(San Andres pasealekutik)

**Tel. 943 20 34 45**

**EIBAR**

## ZEZEN BIDE



## AUTO ESKOLA

## 08/09 Euskara ikastaroak

- Euskalduntze orokorra
- Hizkuntza eskakizuna: IVAP, Irale, Osakidetza
- 1./ 2./ 3. mailak eta EGA
- Gurasoentzako ikastaroak

Udalaren laguntzaz BEKA SISTEMA

## EIBARKO AEK

mihia jan dizu katuak?

Sostoa, 1 - 1. 943 201 379


EUSKARA  
ESKOLAK

azterketa ofizialak  
eta titulu homologatuak

# aek

[eibar@aek.org](mailto:eibar@aek.org)

milaka hiztun berri urtero



# ALFA

[www.alfahogar.com](http://www.alfahogar.com)

